



# ttiipi-ttapa

241. zenbakia • 1998ko azaroak 5 • XVII. urtea



## Santiago MITXELTORENA: Etxalarko eztigilea

«Baserrian erleak genituen eta ttiiki-ttikitatik atta eta amarekin hantxe aritzen nintzen» dio Santiagok. Orain, etxerako ez ezik saldu ere egiten du. Gipuzkoako Erlezainen Elkarte-ko kide ere bada.  3

## 28 Kirolizketa: Mikel Atxa

Almandozko pilotariak profesionaletan debuta egin du ASPErekin bartz urteko kontratua sinatu ondotik.

## 29 Kirolak: Juantxo Apezte- txea munduko txapel- dun Mexikon

Pilotari goizuetarra Munduko txapel-dun suertatu da Mexikon eskuz banakakoan.


**TTIPI-TTAPA ZOZKETA:** Orain txartela izateak abantaila gehiago ditu. Erosketa egiterakoan erakutsi TTIPI TXARTELA eta ZOZKETA-n parte hartzeko boletoak irabaziko dituzu.


# Gure baserriak bartzangoak ez!

## Hori erraiten dute Zugarramurdien

Herrien mugak agertzen dituen mapa edo karta bat begiratzen baldin bada, Zugarramurdi kasik alde guzietatik Bartzango lurrek inguratzen dutela ikusiko dugu. Lur zerrenda batean bakarrik egiten du muga Urdazubirekin. Inguruz-inguru, ordea, ba-

dira baserri aunitz ofizialki Bartzango lurretan daudenak bainan eguneroko bizimoduan Zugarramurdira biltzen direnak. Zerbitsu guziak (eskola, medikua, kanposaindua...) Zugarramurdienekin batera dute, bainan zergak edo errentak Bartzango Udalari or-

daindu behar dizkiote. Hori dena kontutan hartuta, lur horiek ofizialki Bartzandik bereizi eta Zugarramurdin sartzea eskatu du Zugarramurdi Udalak.  4-6



## DONEZTEBEKO FERIAK

Urriaren 13an jendez gainezka egiten dute Doneztebeko karrikek. Feriak berez izaten duen animazioaz gain, urtero bezala bertso saioa izanen da eguerdian, eta arratsaldean, Euskal Herriko bigarren mailako aizkolari txapelketa. *Erdiko gehiagarrian*



Zer eskainiko dizu

Gida honek?

# DEN-DENA

Den-dena eskura eduki nahi baduzu, GIDA hone-tan aurkituko dituzu inguruotako profesional, ko-merzio, lantegi eta zerbitzu guzi-guziak. Informa-zio osoa eta goitik behera gaurkotua, erabiltzeko eta gauzak bilatzeko erraxago antolatua, eta guzi hori, etxetik mugitu gabe.

## telefono gida 99

Inguru honetako etxe guzietan zure negozioaren berri izatea nahi baduzu, jar zaitez gurekin harre-manetan ABENDUAREN 14a baino lehen eta milaka pertsonak irakurriko dute zure mezua.

**ttipi-ttapa** • Herriko Etxeko Plaza, 1 • E-31780 BERA

**(+34) 948 63 11 88**



Bidasoa 45-60

Tfnoa:  
948 630537

**BERA**

**NEURRIRA  
EGINDAKO MOBLEAK**



## Frantses Gobernuak ofizialki ezagutuko du euskara heldu den urtearen hastapenean

Neurri hau ez da aski talde euskaltzaileen ustez

FRANCK DOLOSOR

Frantses Gobernu sozialista lan bat egiten ari da mintzaira gutituetaz. Urte batez, Nicole Pery eta Bernard Poinant deputatuek dozierrak egin dituzte hortaz Lionel Jospin lehen ministroak galdeturik.

Guy Carcassone aditu konstituzionalistak dio Frantziak sinatzen ahalko duela mintzaira gutituen Eurokarta. Pariseko agintariek aipatu dute Eurokarta sinatzeko eta berresteko prest direla. Agiri hundertako 98 artikulua ez dire sinatzen ahalko, bainan 50 bat bai. Eurokarta sinatzeko 35 puntu onartzearekin aski luke frantziar estatuak.

Mintzaira gutituen sailan egia da Frantziak beranta haundia duela, ez baitio ofizialtasunik eman nahi euskara bezalako hizkuntza bati. Gauza bitxia da ikusiz gero Hego Euskal Herrian tokika euskara ere ofiziala dela eta gauza bera gertatzen da Europako bertze he-



**Deiadar kanpainaren baitan joan den apirilean ofizialtasun eske egin zen manifestazioa.**

Argazkia: Euskaldunon Egunkaria

rialde gehientsuenetan. Lapurdi, Baxenafarroa eta Xiberoan ere, beraz, behar litake halako mintzairaren lege bat euskara salbatzeko.

Frantses agintarien arabera euskara ofizialki onartzen ahalko da erakaskuntzan, hedabide eta komunikabideetan, lantegi eta saltokietan, bai eta bankuetan, bainan ez mementuko administrazio eta Justizia sailetan.

Eurokarta sinatu nahi

izateak erreakzioak sortu ditu Ipar Euskal Herrian. Talde euskaltzaileek uste dute euskarak gehiago behar lukela, garatzeko eta bizitzeko. Hizkuntza batek neurri bereziak eta ezagupen ofiziala beharrezkoak ditu. AEKko ordezkarientan erranetan, Eurokartaren espiritua desbideratu nahi da, funtsezko hizkuntz eskubideak ukatuz.

Jadanik ihardetsi direnak baieztatu bertze-

rik ez du egin nahi frantses gobernuak. SEASKA ikastolen federaziotik jakinarazi da asmoa berria ez dela aski neurri berriak beharko direlako etsamin eta azterketak euskaraz egiteko, eta ez frantsesez orain arte bezala.

Euskal Kultur Erakundeko arduradunen arabera Eurokarta sinatzea urrats haundia da, bainan hizkuntz legearen beharra izanen da beti ere.

### Egingo dugu kanpaina arrakastatsua

Egin egunkaria eta irratia itxi zituzten egunetik beretik hasi ziren Egingo langileak proiektu berri batean pentsatzen. Horrela, Egingo Dugu kanpainaren bitartez Euskal Herrian 1.000 milioi pezeta biltzea zen helburua, eta dagoeneko dirutza horren herena baino gehiago lortu da.

Inguru honetan ere oihartzun polita izan du Egingo Dugu kanpainak. Bortziritan, espero zena baino diru gehiago bildu da dagoeneko, eta Malerreka eta Baztan aldean ere sos bilketa bide onetik doaie: Baztanen 2,5 milioi bildu dira proiektu berriaren alde, eta oraindik 4 milioitara ailegatzea espero dute. Malerrekan milioi terdi jarri dute eginzaleek, baina kopuru hori bikoizteko asmoa dago. Zugarramurdin, berriz, 200.000 pezeta bildu dituzte.

Beran 3 milioi biltzea kalkulatu zuten antolatzaileek, baina dagoeneko 4 milioi pasatuxe bildu direla erran behar. Gainera 5 milioitara ailegatzea espero da. Lesakan 2 milioi terdi baino gehiago atera dira, eta Etxalarren, berriz, 700.000 pezeta. Arantzan 900.000 pezeta bildu dira momentuz.

**Dia %**  
Autozerbitzua  
deskontua

**Hamabostero ofertak**  
*Zatoz eta ikusi*

Eztegara, 6  
© 948631403 • BERA

**GRUPO ZURICH**

**ASEGURO OROKORRAK**  
Itzea, 4 — BERA — © 948 630763

**ALZURI**

- Sukalde tresneria eta opariak
- Landare eta loreak

Tel.: 948 630 370 • BERA

**GOYA**

JOSTAILUAK  
JANTZIAK  
OPARIAK  
ERREMINTAK

Altzate, 5 • © 948630083 BERA

**ROMANO PINTURAK**

Barnealdeko dekorazioa,  
pintura, papera, moketa,  
kautxoa eta sintasola.

© 948630941 • 948631137 • BERA

# Ehun eskulangile inguru bildu zen aurtengo Lurraren Egunean

Euria egin zuen arren jende aunitz hurbildu zen Alzatera

## ASIER GOGORZA

Azken 12 urteotan egin den bezalaxe, urriaren laugarren igandean Lurraren Eguna ospatu zen. Urtero Alzate karrikan jartzen diren salmenta postuak frontoira aldatu behar izan zituzte antolatzaileek, eurria bota baitzuen ia egun osoan. Hala ere, eguraldi txarrak ez zuen inor izitu, ehundaka bisitari etorri baitzen herrira.

Urteroko moduan, Berako baserritarren barazki eta fruitu haundi eta ederrenak ikusteko aukera izandu genuen; letxuak, sagarrak, piper eta onddo ikusgarriak, eta bertze hainbat barazki, Berako 80 baserrietatik ekarriak. Barazki erakusketaren ondoan, berriz, gisa guzietako gozogile eta gasnagileren produktuak zeuden salgai. Aunitz izan ziren usaimenak gidatuta jaki goxoren bat edo bertze erosteko tentazioan erori zirenak.

## GASNA HOBERENA PEDRO TELLETXEARENA

Gaurgero izen haundi xamarra duen gasna lehiaketa bertze urte batze egin zen, eta aurten ere Joantzenekobordako Pedro Telletxeak eraman zuen lehenbiziko



saria. Denetara 11 baserritarrek aurkeztu zituzten beren gasnak, eta lau orduko aukeraketa zail baten ondotik epaimahaiak Pedro Telletxearen gasna aukeratu zuen. Bigarren postua, berriz, Alkeberoko Iñaki Errandonearentzat izan zen. Hurrengo saria Etxalarerra joan zen, Isidro Ariztegiarentzat.

Gasna lehiaketari bertze lehiaketa sortu-berri bat elkartu zitzaion: sagardo lehiaketa. Bortzirietako etxe frankotan oraindik sagardoa egiteko ohitura bizirik dela garbi ikusi zen lehiaketa honetan. Sagardo botilik hobere-na Saturnino Pikabea beratarrarena izan zen. Bigarren tokian Lesakako Koxkonta sagardote-



gian egiten duten sagardoak lortu zuen, eta hirugarren Berako Martineko Bordakoa izan zen.

## INOIZ BAINO ESKULANGILE GEHIAGO

Baina, dudarik gabe, artisauen erakusketa izaten da urtero jendearen artean ikusmin gehien sortzen duena. Euskal Herri osotik eta

kanpotik etorritako 100 bat eskulangile ikus zitezkeen pilotalekuko kantxan sakabanaturik: bastoigileak, kaikugileak, saskigileak... denetarik. Jendea gustora ibili zen salmenta postuen artean kuxkuxean, baina eskulangileek berariaiek aipatzen zutenek, ordea, gutti animatzen dira zerbait erostera.

## flash

### Azaroaren 14an

Zalain auzoan afaria egingen dute bertan bizi direnek eta denbora batean Zalainen bizitutakoek ere bai. Azken urteetan berreskuratu dute ohitura hau zalaindarek, baina duela zenbait urte arte bestak ere egiten zituzten auzo horretan, San Martin bestak hain zuzen ere.

### Azaroak 21

1968an jaiotako beratarrek afari batean elkartuko dira egun horretan. Otordua Zalain jatetxean egingen dute. Apuntatu nahi duenak, beraz, jatetxe hortan eman beharko du izena, eta 1.000 pta ordaindu.

### Dantza ikastaroa

Gure Txokoak Baztango Mutildantza ikastaro bat antolatu du azarorako. Hilaren 9an hasiko dira klaseak, baina ortziralek hau da izena emateko azken eguna. Errekalden apuntatu behar da.

## Epamahaikide izateko hautagaiak

Altzугuren Gorria, Mikel Carrillo Ruiz, Maria Belen Errandonea Delclaux, Gonzalo Guerra Irigoien, Maria Belen Larretxea Lizardi, Donato Moreno Paino, Dolores Roldan Rodrigalvarez, P.Luis Urtxegi Agirre, Angel

Ortziraletan, 10etan  
Mus Txapelketak

**E E K L E**  
**st tu**

Tfnoa: 948630259 - BERA

Zure ingurua klase guzitako insektuz (xomorro, zinaurre, armiarna, kukuxu...) eta arratoi-xagutxo garbitu nahi baduzu, deitu!  
Gu arduratuko gara horretaz.  
Termita eta Polillen kontrako tratamendua

**BERA**

© 948630155  
BERA

**Xergel**  
cleapaindegia

★★★★★★★★

© 948631462 • Alzate 1 • BERA

**LESAKA**

# Alkaiagako enpresa mintegia eraikitzeke lanak eman ditu Udalak

Zosimo Zaritieggi enpresak egingen ditu ia 27 milioitan

**AITOR AROZENA**

Zosimo Zaritieggi S.L. eraikuntza enpresak 26.777.469 pezeta-  
ren truke egingen ditu Alkaiagako industrial-  
deko Enpresen Mintegia eraikitzeke lanak.  
Obrak, Patxi Txokarro eta Maria Urmeneta ar-  
kitektoek idatzi dute.

Prezio honek, hasie-  
rako aurrekontuaren  
%19,7ko igoera sup-  
satu du, Europako  
Resider II Planetik 24  
milioiko dirulaguntza  
aurrikusia baitago. Diru  
hau eskuratzeko, ordea,  
urtea akautu baino le-  
hen egin behar zen lan-  
en kontratua.

Honenbertez, aur-  
keztutako proposamen  
bakarrari eman zaio  
kontratua.



## Patrizio eta Iñakiri omenaldia Sastrinen

Urriaren 24an, atxilotu zituztela bortz urte bete direla eta, omenaldia es-  
kaini zitzaizen Sastrinen Iñaki Fagoaga eta Patrizio Goienetxe herriko pre-  
soei. 50 bat lagun bildu ziren, gehienak herritik oinez joandakoak. Patrizioren  
egoeraren berri eman zen -eritasun bategatik, laster baldintzapeko askata-  
sunean utziko dute-, txistorra jan eta sagardoa edan eta argazkirako bildu  
ziren bertaratutakoak. Herriko bertze presoak, Tasio Erkizia, ere gogoratu  
zen, urriaren 23an urteak bete baitzituen.

Argazkia: Aitor

## flash

### ❖ Oihan ateratzea

Udalak Gardelkopa-  
goeta, Telleria, Mal-  
korra eta Eskolamen-  
di inguruetan oihana  
ateratzeko subasta  
eginen du. Lotea,  
6.914 radiata pinuz  
osatua dago, 4.641  
m<sup>3</sup> zur eta 580 m<sup>3</sup>  
egur emanen dute-  
nak. 27.910.080 pe-  
zetan baloratua da-  
go. Proposamenak  
azaroaren 24ko or-  
dubata baino lehen  
aurkeztu behar dira.

### ❖ Iazko udal kontuak onartu dira

Joan den urtean  
467.686.439 pezeta-  
ko diru-sarrerak eta  
488.816.552 pezeta-  
ko gastuak izan zi-  
tuen herriak. Andra  
Mari Erresidentziak,  
berriz, 40.964.410  
pezetako sarrerak eta  
41.364.216 pezeta-  
ko gastuak.

### ❖ Afari-kolokioa Arranon

Larunbatean, azaro-  
ak 7, afari-kolokioa  
eginen da Arranon.  
Patxi Zabaleta HBko  
mahaikidea gonbi-  
datua dago. Txarte-  
lak ortzirala baino le-  
hen hartu behar dira.

## Epamahaikide izateko hautagaiak

Arretxea Adansa, M. Josefa  
Eneterreaga Etxepare, Nora  
Iparragirre Apezetxea, Feliciano  
Martinez Etxabari, Jon  
Palomo Murga, Amalia  
Telletxea Altzuri, Maria Jose



Dantzariak aterpetan aritu behar izan zuten Legarra

## Hamekagarren Dantzari Txiki Eguna eurpean

Urriaren 25ean burutu zen Irain talde-  
ak antolatutako Dantzari Txiki Eguna.  
Euriak kanpoan egin beharreko ekitaldiak  
galerazi zituen, baina herriko arkupe ez-  
berdinetan eta pilotalekuan ikusgai izan  
ziren Lesakara etorritako zortzi taldeen  
dantzak. Irain eta Tantirumairu taldeekin  
batera, Lezo, Igantzi, Legazpia, Goizueta  
eta Zarautzko taldeak etorri ziren, baina  
seguraski, ikusmin gehien pizu zuena  
Donostiako Triskele talde galizarra izan  
zen, beraien arbasoen dantzak erakutsi  
baitzituzten.

**ANA**  
janaridenda  
Bittiria, 41 • © 948637944  
LESAKA

**KATTU**  
ostatu - jatetxea  
Plater konbinatuak eta menuak  
© 948627573 • LESAKA

**BITTIRIA**  
**HARATEGIA**  
© 948 627555  
Bittiria, 43 • LESAKA

**IRU BIDE**  
ERRETEGIA  
Tfnoa: 948 637 127  
LESAKA

**Lurrindenda**  
Marian  
Londiberrri  
Estetika  
Behoko Plaza 8 • © 948637791 • LESAKA

**ETXALAR**

*Portonaria*

# Lodosara bidaia egin zuten Larraburua elkartekoek

Baratza eta arbola zaintzeko ikastaroa aurki hasiko da

**PELLO APEZETXEA**

Eguraldi desberdin eta euritsuko urriro honetan, ez zuten zorte txarra izan Larraburua Elkartekoek. Egun eguzkitsu eta atseginez gozatu ahal izan baitzuten, Erribera aldeko ibilaldian. Lodosan, piperrak kontserban nola paratzen dituzten ikusi zuten, kontserba lantegi batean. Handik Azagara bazkaltzera.

## Baratza eta arbola lantzeko ikastaroa

Aurki hasiko da hainbertzeko errekista duen ikastaroa. Dagoeneko izena emandako saila baldin bada ere, norbaitek sartu nahi badu, Juanita Etxeberriari deitzen ahal dio, 948 635045 zenbakira. Lehen kimatzeari hainbat ordu emana diotenez, orain bertze zenbait gauza ikasiko dituzte.



## Usoak bota botatzen ari dira

Eguraldia ez da gehiegi laguntzen ari, baina egun bat edo bertze izan da eskopetaz ere hainbat uso bota dutena. Argazkian ageri direnak bota zituzten eguna bezala.

Argazkia: Pello

## Hasi dira eskolako irratsaioak

Bete-betea ari dira Landagain Eskolako haurrak irratsaioak herriko etxeetara hedatzen, asteartetik ortziralera luzatuko diren saioak.

## Bereziartua medikuaren solasaldiak

Aitzinera doaz Bereziartua medikuaren solasaldiak, bi ortziraletan eman eta ondoko bi ortziraletan ere ari-

ko da, gure osasuna nola zaindu hainbat gaitzetatik, ze janari eta nola prestatuak diren egoiak horretarako... Azaleko eta odoleko gaitzak aztertuko ditu biharko saioan.



**Angela IRISARRI**

**«USOA»**  
NEKAZARI KOOPERATIBA  
Ganaduarentzat  
pentsurik egokiena  
Tfnoa: 948635214  
**ETXALAR**

**HERRIKO OSTATUA**  
**Jatetxea**  
© 948635290 **ETXALAR**

**ZALAIN**  
JATETXEA  
Zalain Auzoa  
© 948631106  
**BERA**  
**Boda eta banketeak ematen dira**

**XATURBETXEA**  
**JATETXEA**  
Tfnoa: 948637027 **LESAKA**

**HARITZPE**  
948635235  
948635038  
**GOSARIAK • BAZKARIAK • BOKATAK**  
Astebukaera eta besta egunetan zabalik. Ortziralak enkarguz.

**LEGARRA**  
Legarra, 9 • © 948 637 030 • **LESAKA**  
**IGANDE GOIZETAN IDEKITA DUGU**  
• Liburuak  
• Papertegia  
• Tabakoa  
• Plastifikazioak egiten ditugu  
• FAX publikoa  
• Enkuadernatzeak  
• Inprenta lanak  
*Enkuadernatzeak  
espiralean ere  
egiten dira*

**KOXXILA OSTATUA**  
Zarandia, 4 - **LESAKA**

**IGANTZI**

# Bikote berriak kanpora joateko joera hautsi egin da azken urteotan

Etxe berriak egiteko baimen-eskariak ere goiti joan dira

OSKAR TXOPERENA

Nabaritzeko moduan aldatu da Igantziko gazteen joera ezkondu ondotik bizitzeko herria aukeratzeko orduan. Eskutan ditugun datuek diotenaren arabera, 1993tik 1996era osatu ziren 17 bikoteetatik 3 bakarrik gelditu ziren herrian bizitzera, 1993a bitartean zegoen joera bera jarraituz. Azken bi urteotan, ordea, datuak hagitz desberdinak dira, osatutako bederatzik bikoteetatik bat bakarra baita bizitzera kanpora joan dena.

Orain dela urte batzuk etxebizitza berriak egiteko arauak hagitz zorrotzak zirela erran behar da, eta hauen xamurtzeak jende aunitz animatu izanen du, ez dago dudarik, proiektu berritan sartzerako. Oker ez bagaude, hamar dira



## Kanposantuak itxura ederra du urte osoan

Denbora batetik honat aunitz aldatu dira gauzak hilerri edo kanposantuen itxurari dagokionez. Domisaintu egunean kanposantu guziak egoten dira txukun eta garbiak, baina, Igantzikoa behinpein, urte guzian zehar ere hagitz garbia da orain.

azken bi urteotan egin edo hasi diren etxebizitza berriak, eta guttinez bertze hirurentzat emana du Udalak baimena. Hori ote da, ordea, jendea herrian gel-

ditzen hasteko arrazoi bakarra? Zer gertatu da Igantzin azken alde honetan joera hainbertze aldatzeko? Zerk egiten du orain Igantzi orain dela urte batzuk baino

erakargarriago? Horretarako bakoitzak erantzun bat izanen du, baina, oker ibiliko ginateke seguraski arrazoi urbanistiko soilak bilatuko bagenitu.

## Kultur egunak abendu haseran

Ohitura bihurtua zen Domisaintu egunak sortzen dituen zubiak aprobetxatzea udazkeneko Kultur egunak antolatzeko, baina aurren, beranduxeago izanen dira, abenduaren 3tik 8ra seguraski. Gauza aunitz dago oraindik zintzilik, eta, deus okerrik erran baino lehen, ekitaldien berri hurrengo aletan ematea hobe izanen dugu.

## Egingo dugu

Egin egunkaria itxi zenetik sortutako hutsunea bete nahirik, "Egingo dugu" lemapean, 450.000 pezetan inguru bildu dira Igantzin egunkari berriarentzat. Bi akzio zeuden aurreikusita Igantzirentzat, hau da, 200.000 pezeta. Ikusten denez bikoiztu egin dira zeuden prebisioak.

**CONSTRUCCIONES MECANICAS**  
**BERBIZTUN S.L.**  
 Makinaria eraikuntza  
 Moldaketak eta despiezea  
 Mantenimendu mekanikoa  
 Torno, fresadorak, errektifikadorak  
 Igantziko Bentak • © 948627572 • Faxa: 948637313

**SAROB**  
**okindegia**  
**SANDERS Pentsuak**  
 Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA

**LANCHAS**  
 © 948631076 • BERA

**LESKA**

**Toldos BAZTAN, S.L.**  
**TOLDOEN SALMENTA, ALOKAIKUA ETA KONPONKETA**

- Kamioi eta industri-furgoneten errotulazioa (Errotulazio zerbitzua)
- Etxerako toldoak, eguzkitik babesteko (manualak edo elektrikoak)
- Toldo korrederoak
- Bolketeeendako sareak
- Kamioiendako klase guzietako toldoak
- Pizina estaltzeko sareak
- Trinkajetarako Slingak

Alkaiaga industrialdea, Baldrun 8  
**LESKA** (Zalain industrialdearen ondoan)  
 Tel. 948. 63 10 03  
 Mug.: 929 01 59 23

**LANCHAS**

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura Orokorrak

Bera  
 © 948630735

**ARANTZA**

# Hainbat lan egin dituzte hiru hilabetez Herriko Etxeak hartutako langileek

Eskolako neska-mutikoak Xorroxin Irratian aritu dira

ELIXABET ETA GARBIÑE

Azkeneko hiru hilabete terdiz herriko langile izan ditugun Iñaki Madariaga eta Juan Mari Telletxeari kontratua akautu zaie. Hauek herriko garbitasunaz arduratu dira. Hilabete hauetan herrian lan aunitz egin dute, hauen artean baskula moldatu, Herriko Etxeko beheko solairua zarpeatu, margotu...

## Eskolako neska-mutikoak Xorroxin Irratian

Aspaldiko urtetan bezalaxe aurten ere eskolako haurrak lau egunez Xorroxin irratian aritu dira. Maila guztietako haurrek hartu dute parte eta erran digutenez hagitz ongi pasatu dute. Asmakizunak, ipuinak, txisteak, denetatik izan da asteartetik



Hainbat urte dira Xorroxinekoak eskolara etortzen direla

Artxibokoa

ortziralera eskolako haurren eskutik.

## Bertso bazkaria Oilagorretako etxolan

Ehiza garaian gaudenez, aurten ere

Bagatxarreko ehizturiak Oilagorretan duten etxolan bertso bazkaria izan dute. Bertan Xebastian Lizaso eta Iñaki Murua bertsolariak aritu ziren, nahiz eta azken honek ez zuen bertsorik bota,

marrantua baitzegoen. Baten bat botatzen saiatu omen zen baina ederki kosta zitzaion. Hala eta guztiz ere, bertan bildutako hogeita hamar bat lagunek hagitz ongi pasatu omen zuten.

## Albokaren emanaldia

Joan den ortzirallean, urriak 23, Alboka folklore taldea izan genuen. Hasiara batean eskolan jotzekoak ziren, baina azkenean, plazan jo zuten. Hasieran, nahiz eta jende gutti egon, hasieran jende franko bildu zen.

## Kultur Astea burutu da

Asteburu indartsua izan da azken hau, Kultu Astea burutu baita. Leitzarrek egindako filmea ikusi, ipuinak eta solasaldiak aditu... aukera zabala izan da ortziral eta larunbatean. Igandean, berriz, baserriarren Eguna burutu da. Baserriko produktu ugari ikusi dira, Leitzako trikitilarien doinupean. Ekaitza elkarteko bazkarian ere jende ugari bildu da.



## MARTIKO

*Gure baserrietako produktua*

© 948 630 700 • Fax 948 631 213  
Zalain Poligonoa, BERA



## PINTURAS DEL BIDAISOA

Barne eta kanpoaldeak  
Goteleak - Iztukadurak  
Lakatuak - Paperezatzeak

Lucas Sansiñena 929-416768 • 948 630 512  
Jose Luis Macayo 970-655785 • 943 341 270

Aurrekontuak  
Loturirik gabe



## EKAITZA kafetegia

GOSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA

Lagunekin elkartzeko toki egokia

Plaza Berria, 13 ☎ (948) 627547 **LESAKA**

## OKANE

**HARATEGIA • URDAITEGIA**

Kanttonberri 4, Tfnoa: 948630018 • BERA

## EROSLE

LESAKA

Kalitate-prezio arteko orekarik hobereana

Frexkuena  
zugandik  
hurbilago

Bitirria, 67 • © 948637264



**SUNBILLA**

# Domisaindu Egunean itxi zen aurtengoz Ariztigain kanpalekua

Bideak moldatzeko lehiaketa zabaldu du Udalak

JAIONE ETA ALBA

Joan den martxoan ireki zen Ariztigain kanpalekua, eta zazpi hilabetez zabalik egon ondotik, igande honetan, Domisaindu egunean, adio erran dio aurtengo denboraldiari.

Aurten ere, hainbat leku desberdinetako jendea erakarri du Sunbilla eta inguruetara, herriko turismoa indartuz. Orain, udazken eta negu parteko atsedenaldia hartzeko tenorea ailegatu zaie.

## Bideak moldatzeko lehiaketa zabaldu du Udalak

Sunbillako Udalak, Ermitagoia, Arretzeko borda eta Lizun base-rietara doazen bideen moldaketarako lehiaketa plazaratu du. Hasierako prezioa 4.280.080 pezetakoa da



Heldu den udaberrian zabalduko ditu berriz bere ateak Ariztigain kanpalekuak. Artxibokoa

eta behin lanak emanda hilabeteke epea izanen da akitzeko.

Interesatua dagoen guztiak beharrezkoak diren dokumentuekin batera, bere eskaera egin beharko du udal-idazkaritzan lehenbailehen.

## Azienden aitortpena egiteko epea

Azaroaren 15ean akituko da azienden aitortpena egiteko epea. Azienden jabe den guztiak udal idazkaritzara jo beharko du aitortpena egiteko.

## Bosniara laguntza eman dute herritarrek

Azken asteetan herriko jendea janari eta jantziak biltzen aritu da, Bosniara bidaltzeko. Guztiak pilotalekuan bildu dituzte eta urria-

ren 24an eraman zituzten borondatez emandako hainbat jantzi, janari, oinetako... Bosnia aldera.

## Itturburu ostatuan mus txapelketa

Itturburu ostatuan mus txapelketa eginen da igande arratsaldetan, 4,30etatik aitzin. Azaroaren 8an izanen du lehen eguna eta ekaina bitarte luzatuko da.

## Egin egunkaria eta irriatiaren itxierari buruzko solasaldia

Oraindik eguna zehaztu gabe badago ere, Egin egunkaria eta irriatiaren itxierari buruzko solasaldia emanen du Iosu Goia beratarrak Sunbillan. *Baietz!* egitasmo berriari buruz ere arituko da. Herrian barrena kartelak paratuko dira noiz eta non eginen den jakitera emateko.

**ttipi-ttapa** Zure publizitatea  
 etxe xoko  
 guzietan  
 6.800 *harpidedun*  
 23.000 *irakurle*  
 ☎ 948 63 11 88

**Iberrera Martzaria**  
 Hurrengo ordea  
 0-24 ordu  
 Pasaia kalea, 6 - Donostia  
 48104

**BEINTZAko OSTATUA**  
 ☎ 948 450 014  
 BEINTZA-LABAIEN

**ZALDUBI**  
 Martin Lizasoain Adansa

- SUKALDE MOBLEAK
- BAINU MOBLEAK
- MANPARAK

Zaldubi Poligonoa • ☎ 948 580 562 IRURITA

**FUNERARIA ZERBITZUAK**  
**DONEZTEBEn**

**MALDAERREKA, S.L.**

24 orduko zerbitzua  
 Iruñea-Donostia-Irongo ospitaletatik  
 edozein herritara trasladokoak  
 Tfnoa: 948637404 • LESAKA  
 Tfnoa: 948450475 • DONEZTEBE

**DONEZTEBE**

# Paleta eta laxoa txapelketako finalak jokatu dira asteburuan

Emakumeak eta gazte mailako pilotariak aritu dira

PATXI IRIARTE

Pilotarekin lotutako zenbait ekitaldi izan ditugu asteburu honetan. Hau idazterakoan ez dugu emaitzen berri, baina asteburuan jokatu dira Errekak antolatutako emakumeen laugarren paleta-goma txapelketaren finala eta Doneztebeko gazte mailako laxoa txapelketa-rena.

Emakumeei dago-kienez, larunbatean jokatu zen finala, lehen-dabiziko fasean joku polita erakutsi ondoren. Finalerdietan lau bikote bikain aritu ziren, errespetuak paratzen duten hautakoak eta lehendik ere borroka hautetan ederki zailduak. Lehendabizikoan, Etxegia-Boubeta gaur egungo txapeldunak. Pronostikoak guttitan hausten direla erakutsi zuten eta faborito papera bereganatu zuten. Aitzinean, Taberna eta Etxabarri Lesakako biteranak aurre egin zieten gazteei. Halere, azken emaitza 35-22koa izan zen.



## Feriak datorren ortziralean

Datorren ortziralean, azaroak 13, ospatuko dira Doneztebeko Feriak. Eguerdietan, Xebastian Lizaso eta Angel Mari Peñagarikano bertsolariak arituko dira eta arratsaldean, Euskal Herriko bigarren mailako aizkolari txapelketa izanen da jokoan. Giro polita izanen da karriketan, beti bezala.

Bigarren, ere gisako aipamena egiten ahal da. Gazteek (Elizainzin eta Argain) 35-23 irabazi zieten helduei (Pierola eta Altzugarai). Halere, egiazko gozamina da adinotako pilotariak beraien afizioa lantzen ikustea. Beraien lan gogorrari eta jokoari esker ailegatu dira finalerdira.

Laxoa txapelketari dagokionez, A eta B taldeek igandean jokatu dute finala, eguerdiko 12etan. A taldean Josu Juanena aritu da sakalari gisa; Luis Martin numeroa eta Josetxo Martin eta Gorka Bidegain laurdenak. B taldean Joxe Manuel Mitxeltoarena da sakalaria. Gibelean Mikel Ariztegi

dute laguntzaile bezala, Luismi Garcia eta Jesus Mari Migueltoarena laurdenekin.

Lehendabiziko fasean zenbait gorabehera izan dira euriarekin, baina azkenean, sailkapena ia alfabetikoki gelditu zen: A, B, D eta C.

Hurrengo alean emaitzen berri emanen dugu.

## Belatetik Doneztebera mendi ibilaldia gaez igandean

Erreka mendi taldeak ateraldi arras berexia antolatu du igandean honetarako, azaroaren 8rako. Orain arte, denboraldi honetan bi aldiz atera dira, batean Otxon mendira eta bertzean Itxusira, baina iganderako presatu dena ez da sekulan egin. Gainera, ez dugu inoiz aditu inguruko bertze mendi taldeek sekula egin dutenik ere: ilargi bete aprobetxatuz mendi ateraldia gaez egingen da. Doneztebeko autobus geltokitik larunbat goizaldeko 2etan aterako dira -Bordatxoalderen bat ere akaso animatuko da- eta autoan Belate gaineko Venta Quemadara joanen dira. Handik, ilargiaren laguntzaz, oinez jaitsiko dira eta Donezteben gosalduko dute. Arras berexia, arras interesgarria eta aurten egingen diren ekitaldien hasiera bertzerik ez da. Abenduaren 9 eta 10ean Astazúra joateko asmoa sakontzen ari dira; bertze bi hiru milako elur gainean vivac eginez gauzatuko dira Marboréko laku izoztuan eta mugaz bertzaldera, Gabarniera, zeharkaldia egingen da. Eraberean, San Donato eta Malloakera aterako dira Erreka taldekoak, orain arte inoiz egin ez diren ateraldiak hauek ere.

Beraz, ateraldi aunitz eta, horietatik gehienak, berriak. Jendea animatzeko moduko aukera.

**ETXANDI TXOKO**  
**jatetxea**

Bazkari, afari eta gosariak

ITUREN  
948 450 491



Tel.: 948 450 133  
948 451 541  
Faxa: 948 450 334  
**DONEZTEBE**

**APARAN, S. A.**  
BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...

ITUREN



**Hamabortz bikote Aurtizko eskuz binakako txapelketan**

Aurtizko Ostatuak bigarren urtez antolatutako eskuz binakako txapelketan hamabortz bikotek eman dute izena. Honek kalitate eta kopuruaren aldetik hobekuntza dakar, ez baita batere arrunta 30 pilotari biltzea eskuzko txapelketa batean –ikusteko afizio gehiago dago, noski, aritzeko baino—. Lehendabiziko fasea joan den igandean hasi zen eta azaroaren azken asteburuan akituko da. Ligaxka modura jokatuko da, multzo bakoitzeko bikote guztiak elkarren kontra arituz.

1. multzoan Manuelto-Igor, Antxone-Asier, Borda-Urrutia eta Abarkero anaiak ari dira. 2. multzoan hiru bikote daude: Makatzene-Zipri, Mitxeo-Juanena eta Patziku-Fermin. 3. multzoan Otxoteko-Zubieta, Bordaxuri-Iban Urrutia, Bespa-Mindegia eta Retegi-Ugalde. 4. multzoan Ordoki-Telletxea, Mugika-Matxitene, Kastro-Irigoien eta Zabaleta-Mariñelarena ariko dira.

Bakarren bat falta dela somatu dugu, baina koadro polita osatu da, txapelketa hau gogo onez hartu denaren erakusgarri. Aurtizko Koianea-tiki pilotalekua arras polita da pilotarientzat, baita ikusleentzat ere. Partiduak igandero jokatzen dira, lehendabizikoa goizeko 10etan eta azkenekoa eguerdiko ordubatean.

**Aurtizko San Martin bestak, azaroaren 11tik 15era**

Larunbat gauean kontzertua izanen da

**Asteazkena, azaroak 11 San Martin Eguna**

9etan txupinazoa. 11tan Meza Nagusia. 12,30etan pilota partidua. 2etan herri bazkaria, Xabier Amuriza eta Angel Mari Peñagarikano bertsoariekin.

**Arratsaldez eta gauetz** dantzaldia JOXE ANGEL akordeolariaren eskutik.

**Ortzeguna, azaroak 12** 11tan mus txapelketa.

5etan haur jokoak.

**Arratsaldez eta gauetz** dantzaldia JOXE ANGELen eskutik.

**Ortzirala, azaroak 13**

9etan zopak Aurtizko Ostatuan. 12etan dantzaldia EZTANDA taldearekin.

**Larunbata, azaroak 14**

5etan trikitixa jaialdia. 11tan kontzertua: PROTEX BLUE ska taldea eta BERPIZTU leitzarrak. Ondoren, dantzaldia EZTANDA tal-

dearekin.

**Igandea, azaroak 15**

1etan pilota partidua. 5etan Ezpeletako dantzariak. **Arratsaldez eta gauetz** dantzaldia JOXE ANGELen eskutik.

**Miguel, Fermin,**

**Tiburzio, Trini,**

**Patxi, Ana,**

**Josetxo, Mari**

**Tere, Jose Angel,**

**Sagrario, Jose**

**Antonio, Esther,**

**Jose Luis, Javier,**

**Mari Juani, Axun,**

**Ignacio, Teresita,**

**Birginia eta F.Luis**

**ageri dira duela**

**hogei bat**

**ateratako argazki**

**hauetan.**

**Dantzarako afizio**

**haundia zegoen,**

**ageri denez.**



# Doneztebeko ferriak azaroaren 13an



**S**

an Martin ondoko ortziraletan hitzordua izanen du

Donezteben Malerreka eta inguruko jendeak. Eguerdian bertso saioa eta arratsaldean, Euskal Herriko

bigarren mailako aizkolari txapelketaren finala. Baina hori baino aunitzez gehiago da feria eguna:

Aziendak, saltzaileak, aspaldiko lagunak... egun batez denak elkartuko dira Donezteben.

Abelzantzak garai bateko indarra galdu badute ere, oraindik badira urtez urte beraien aziendak plazaratzen dituzten tratanteak

Arg.: Zarbok utzia

**ARozENA** ostatua

Gosariak eta bazkariak

Eguzki Eder 3, Tfnoa: 948 450 443 - **DONEZTEBE**

**MAITE** ileapaindegia

**GIZON eta EMAKUMEENDAKO Solarium-a**

Mourges Etorbidea 4, ☎ 948 451780 • **DONEZTEBE**



Amezti 7, © 948 45 02 71 - **DONEZTEBE**



Merkatarien karrika 28  
© 948 451826  
**DONEZTEBE**



Tel eta Faxa: 948 450 289  
Parrokia 17  
**DONEZTEBE**

Koteto EZKURRA, erremontelaria:

## «Besta giroa eta lana egitea lotu behar ditut Feria Egunean»

Doneztebar guzientzat bezalaxe egun berezia da Feria Eguna Koteto Ezkurra erremontelariarentzat. «Aunitz gustatzen zait, goizean ateri, azienden feria ikusi, jendearekin solastu, lagunekin pintxo pare bat ardo pare batekin hartu... horko giroan ibiltzea polita izaten da».

Gero, ordea, lana ere egin behar du, etxeko jatetxean lagundu behar baitu. «Niretako hamabietan akitzten dira feriak. Egundorretan bazkari aunitz ematen ditugu erretegian, bi txandatan banatuak: lehendabizikoa hamabi terdiak aldera ematen dugu eta gure etxera, normalean betiko jendea etor-

tzen da, baina hortik aparte goixamar baserritarrak etortzen dira. Hiruetan ematen dugu bigarren txanda eta hor bankuetako jendea... Bezeroak gehienetan betikoak izaten dira».

Ageri denez, besta giroa eta lana uztartu behar ditu Koteto Ezkurra Ferietan.

### Gero eta azienda gutiago ikusten dira

Azienda feria da gehien gusatzen zaiona, baina urtetik urtera abere gutiago ikusten direla onartu du Kotetok.

«Gero eta guttiago etortzen da. Gehien bat behiak izaten di-

ra, artzain batzuk beraien ardiak eta ahareak ere ekartzen dituzte, baina nahiko gutti».

Euskaldunberria da Ezkurra eta dagoeneko euskara ederki menperatzen du. Eguerdian egiten den bertso saioa ez du aditzerik izaten, baina bertsoarako zaletasun handia omen du dagoeneko. «Lizaso dagoen gustatzen zaidana, baina ezin izanen dut aditu».

Erremonteak, Doneztebeko feria egunean egotea galerazi zion duela lau pabortz urte. «Profesionala nintzen lehendabiziko urtea izanen zen eta partida ortziralean paratu zuten. Pena haundia hartu nuen, ongi pasatzeaz gain, egun horre-

tan lan handia baitugu etxean eta lagundu behar delakoz, baina zer eginen dugu...».

Kirol arloari lotuta, berriki hasi du Kotetok Espainiako binakako erremonte txapelketa, Imazekin bikote eginez. Lehendabiziko partiduan bikain ibili ziren eta aisa irabazi zieten gaur egungo txapel dunei. «Partidu arraxo xamarra izan zen. Eurek espero baino gehiago huts egin zuten eta Imaz arront ongi ibili zen gibelaldean, oso seguru». Ezkurra itxaropentsu ageri da: «Duela lau urte irabazi nuen txapelketa hau, baina geroztik huts egin dut. Dagoeneko gogoia eta esperantzaz baino gehiago txapel-

**MARTIN  
HARATEGIA**

*Bertako  
aretxiak*

Parrokia 1  
☎ 948 450160  
DONEZTEBE



**ALBAITERITZA  
ZENTRU TEKNIKOA**

Juan Ramon Ostiz

Karrika Nagusia 1, ☎ 948 45 05 91 - DONEZTEBE

**Aldabe  
TAXIa**

☎ 948 450687  
☎ 910 213326

*goro-goroo  
eta bixi-bixia*

Parrokia, 10  
DONEZTEBE



Elizagibela, 7 Behea  
☎ 948 45 01 02  
DONEZTEBE

**Ingelesa ikasteko  
modurik errax  
eta atseginena**

*Feria on batzuk  
pasa!!!*

**AUKERA**  
Vitara Diesela 400.000  
pezeta bitarte merkeago

**MENDAUR  
MOTOR**

Leitzako errepidea  
☎ 948 45 03 33  
DONEZTEBE

- Kotxea ITV pasatzeko prestatuko dizugu
- Mekanika eta elektrizitatea
- SUZUKI, NISSAN, MITSUBISI eta OPEL ibilgailuak
- Aukerako ibilgailuak
- Tapizeriak garbitzen ditugu
- Ezkontzetarako autoak apaintzen ditugu


keta hau irabazteko beharra daukat».

Bolada txarra pasatu berria zuen doneztebarrak eta aste-beteko atsedendia hartu eta gero gogotsu kantxaratu da. «Bolada txar baten ondoren fisikoki eta burua deskantsatzeko beharra nuen, beti partidu gogorrak jokatzen, laguna aldatzen... burua nekatzen da. Orain, berriz ere jokua hartzen hasi naiz. Iruditzen zait txapelketa honetan paper ona egiten ahal dugula. Bikote polita dugu, baina talde gogorrean gaude: lautik bi kanpoan gelditzen dira. Halere, lehendabiziko pausua eman dugu».

## Lizasoren kontrako finala gogoan

Oraindik pilotazale gehien, eta batez ere Doneztebekoen begietan dago Iñaki lizaso herritararen kontra buruz buru jokatutako finala. Beretzat ere partidu berezia izan zen, nahiz eta, astero partiduak jokatuz, pixko bat ahaz-

tua duen. «Lizaso nere laguna da baina poz haundia hartu nuen irabaztean, niretako uda gogorra izan baitzen. Ez nuen penarik hartu, neretzat pena izan zen nik galtzea. Herrian ez zen bertze solabiderik orduan eta nik aitzinetik hiru aldiz irabazia nuenez, badakizu, jendea gibelatik datorrenaren alde jartzen da normalean. Bertzeetan baino presio eta tentsio gehiagorekin ateranintzen». Laugarren Bingo Londres txapelketa izan zen Ezkurrarentzat. «Bai, sponsor hau dagoenetik, beti nik irabazi dut, batzuetan txantxetan erran didate nere izena paratu beharko diotela sariari» dio irriz doneztebarrak. Datorren urtean ere saiatuko omen da txapela jantzen, «baina urtetik urtera zailagoa dago eta noizbait galdu beharko dut, nik ere». □



## LAKANBRA MOTOAK

### Husqvarna motozerren ofertak

45 Mod.	64.185 pta
55 Mod.	78.609 pta
61 Mod.	89.946 pta
371 Mod.	129.973 pta

Parrokia 18, © 948 450082 - DONEZTEBE

**AIDA**

Parrokia 11  
Tfnoa: 948 45 01 12  
**DONEZTEBE**

## iBAi ONDO

### Ostatua

Intzakardi  
© 948 450123  
**DONEZTEBE**

## JUAN J. PIKABEA

**AUKERA HAUNDIA  
TRAJE EGINETAN**

**NEURRI HAGITZ HAUNDITAN  
AUKERA ZABAL-ZABALA**

AMEZTIA Z/G • **DONEZTEBE**  
TFNOA: 948 45 16 70

**Marka hauetako  
galtza bakeroak:**

- Bonaventure,
- Lois, Mendozas,
- Mathew's, Lotus...
- 64. taila bitarte.



**Eskulanak  
enkarguz  
egiten  
dira**

**Eskulangintzarako materialak  
lienzoak • kaballeteak • oleoak  
Haurrentzako eta helduentzako eskulan ikastaroa**

© 948 451 932 - Elizagibela, 4 - **DONEZTEBE**

# Euskal Herriko bigarren mailako aizkolari txapelketa jokoan



**F**eria eguna aziendarekin etamerkatugiroarekin lotu da betidanik, baina azken urteotan, kirolari ere tarte berezia eskaintzen dio, batez ere herri kirolari. Aurten Sunbillara aldatu bada ere, hainbat urtetan Donezteben egon da Nafarroako Herri Kirol Federazioaren egoitza eta erakunde honek, jaialdi ikusgarriak edo txapelketa interesgarriak antolatu ditu urtero.

Heldu den ortziralean ez da guttiago

izanen, eskolako pilotalekuan Euskal Herriko bigarren mailako aizkolari txapelketaren finala jokatuko baita, arratsaldeko 5,30etatik aitzinera.

Finalerako sailkatzen diren sei aizkolariak honako lan hau egin beharko dute: Bi kanaerdiko, 60 ontzako bi eta 72 ontzako bertze bi enbor moztea.

**Hamahiru aizkolari Lakuntzako kanporaketan**

Igande honetan burutu da Lakuntzan final honetan

aritzeko eskubidea ematen duten sei txartelak lortzeko kanporaketa. Lerro hauek idazterakoan ez dakigu zein izanen diren Donezteben. Bai, ordea, zein aritu diren Lakuntzan: Felix Etxeberria (Sunbilla), Jaime Gorriti (Huarte-Arakil), Manuel Kañamares (Aroste-

**Felix Etxeberria sunbilla-rra izanen da beterranoenetako txapelketan.**



**Luis Mari Belarra doneztebarrak, eri zegoela eta, ezin izan zuen Nafarroako txapelketan parte hartu. Beraz, gogo haundiz plaza-ratuko da txapelketa honetan.**

**SAIOA**  
**boutique**

*Bakero eta sport arropa*

Karrika Nagusia 7  
© 948 451704  
DONEZTEBE

*Doneztebe* autoeskola

**Donezteben autoeskola berria laster zabalik**

© 948 451 929  
Leitzarako errepedea, 2 behe • **DONEZTEBE**

**MAYLIN** ostatua

*Feriak ongi pasa*

Parrokia 15, Tfnoa: 948 450 366 - **DONEZTEBE**

**SALDIAS**  
**HARATEGIA**

*Bertako haragi frexkoetan espezializatuak*

Karrika Nagusia 21  
© 948 450210  
**DONEZTEBE**

**ZURE GORPUTZA ZURE ALT XORRA DA**

- Denboraldiko osagarriak
- Bitxidenda
- Estetika: Aurpegiko tratamenduak, Peeling, oxigenazioa
- Ile-kentze elektrikoa edo argizariarekin
- Makilaia



- Lurrindegia •
- Apaindegia •
- Neapaindegia •

Ameztiak karrika z/g  
© 948 450163 • **DONEZTEBE**

**SEIKO**  
*Migelena Anaiak*

**Erlojudenda eta bitxidenda**  
**Sukalde eta bainuko mogleak**  
**Elektrogailuak eta sukalde tresneria**  
**Zerbitzu teknikoa**

Ameztiak z/g • © 45 01 26 • **DONEZTEBE**

*Urte guziz, hazilaren 11n ospakizunak gertatzen dire munduko lehen gerlaren armixtizarenkari. Dena dela, besta ote da ala Euskal Herria hustu duen gertakari latza?*

*Aldi huntako TTIPI-TTAPAN hazilaren 11ren ingurukoak aipatzea bururatu zaigu Senpereko historia hobekia-go ezagutzeko gisan.*

*Iritzi eta sentimendu diferentak agertzen dire ondoko orrialdeetan...*



**DONOSTIAko Bertsolarien txapelketan bigarrena izan zen:**

1. Basarri
2. Matxin
3. Zepai
4. Alkain

## «GERLA HANDIA» (1914-1918)

- 1) Ene izpirituan hasten naiz pentsatzen  
Gizonaren bizia zer ote zitaken  
Egia ez da errex zuzen esplikatzeko  
Ainitzen justizia ez dut ezagutzen  
Gu penaz higitzen  
Elgarren xahutzen  
Bat bertzea hiltzen  
Odola ixurtzen  
Aberatsak urrundik irriz asetzen (bis)
- 2) Mila bedatzi eunta hamalagarrena  
Agoztuko ilaren lenengo eguna  
Europako gerla bat hasi izan dena  
Frantzian azkar ginen bazela zuzena  
Legea emana  
Denentzat berdina  
Gerlako on dena  
Biltzeko ordena  
Baina eskapatzen da dirua duena (bis)
- 3) Partitu ginen beraz guziak herritik  
Gure familietan penetan utzirik  
Haur ttipi zonbaitekin andrea bakarrik  
Gizona penatua hor ez da dudarik  
Orduaz geroztik  
Dabilenak xutik  
Zerbait ikusten dik  
Penaren partetik  
Hilak bere konduak eginak ditik (bis)
- 4) Zonbait gizon alferren kaprizia gatik  
Jende miserabliak hor pekatzen ditik  
Ainitzek ez diagu ardit baten lurrik  
Bertzenaren ontutzen gabiltzak bakarrik  
Aberatsetarik  
Ainitzak segurik  
Urrun dituk sutik  
Beldurraren gatik  
Gu hemen hiltzen hoienu manuen gatik (bis)
- 5) Izpiritu duenak errex du pentsatzen  
Gure diferentzia zonbatekoa den  
Haundiak ari dira ttipien manatzen  
Pobrearen indarrez galonez altxatzen  
Ohorez haunditzen  
Mirailez beztitzen  
Diruaren biltzen  
Intresen doblatzen  
Gu horien manutik elgarren hiltzen (bis)
- 6) Gerla hunetan parte izatu duenak  
Segur ezagutzen dik zer dituen penak  
Gogoan baitituzte aita amen griñak  
Bertze zonbaitek aldiz andre ta haurrenak  
Lagun baduenak  
Berak ere lanak  
gau eta egunak  
Irriskuan denak  
Zer konda behar likek hiltzen ez denak (bis)
- 7) Zonbat amaren seme dolorez haziak  
Hemen uzten dituzte gaixoek biziak  
Iñorantzia batez hunat etorriak  
Hekien plazak dira nigarringarriak  
Orobat erdiak  
Beltzez estaliak  
Odolez betiak  
Iñozent trixtiak  
Zonbait alferren gatik hoienu guziak (bis)

**Senpereko Matxin IRABOLA zenak eman bertsuak  
H. Duhauk utziak**






Beheitiko 71 pertsona hauek ere goiko argazkian egon beharko lukete, bainan bizia galdu zuten I. Gerla Handian. Bertze aunitz zaurituak izan ziren. Gogoratu behar da 1914-1918 urteetan 400 familia zituela Senperrek. Belaualdi oso bat hunkitu zuen gerlak.

1914-1918 MYNDYKO  
GERLAN BILDAKO  
SENPERTARRAK

BERRUET J. Pierre Jean Bi Karlos  
 AGUIERRE Vincent  
 ALBANDOS Martin  
 ANIOTZ Charles  
 ARANCET Jean  
 ARANCET Michel  
 ARRAZAU Prudent  
 AUDIOT Marius  
 BARBERIA Bernard  
 BAYLAUCQ Michel  
 BEHASTEGUY Francois  
 BEHASTEGUY Martin  
 BELLET Eugene  
 BEHASTEGUY J. Baptiste  
 BERGANA J. Baptiste  
 BERRUET Martin  
 BERRUET Jean  
 BERRUET St Martin  
 BETHS Victor  
 BORDAGE Joseph  
 CARRICABURU Felix  
 CINGALBIER Pierre  
 COURU Paul  
 DESERRE Martin


DESSEIN Firmin  
 DOUBISSOURT Jean Blaise  
 DOYENARD St Martin  
 DUHALDE Paul  
 ELHORGA Michel  
 ELISSONDO Raymond  
 ESTECOMENA J. Baptiste  
 ETCHEBEST Francois  
 ETCHECOURY Pedro  
 EYHERAGARAY Bernard  
 EYHERAGARAY Jose Michel  
 EYHERAGARAY Joseph  
 FERNANDEZ J. Baptiste  
 GUYENETCHE Pierre  
 GUYENETCHE Christobal  
 GUILTYOU Bernard  
 HALSOUET Hilare  
 IDARBIDE Joseph  
 ILLAROU Jerome  
 LAFITTE Michel  
 LARROUET J. Baptiste  
 LASCARU Michel  
 LASSAGUA Louis  
 LARAGUE Michel

MAZA Philippe  
 MIGURA Jean  
 MIRANDA Joseph  
 MITCHELENA Joseph  
 MUNDUTEGUY Jean  
 NAZABAL Salvat  
 NAZABAL J. Baptiste  
 OXANDABOURL Kede  
 PAGOAL Jean  
 PEGNECUY Dominique  
 PEGNECUY Jean  
 PETIT Jean  
 PONS J. Baptiste  
 PONS F. Francois  
 SANSUENNE Jean  
 SALHA Pierre  
 SANCHEZ J. Pierre  
 SANSUENNE J. Baptiste  
 SANSUENNE Michel  
 SEIN Dominique  
 SISTIAGUI Theophile  
 USTIBIENA Joseph  
 ZUBIETA Bernard  
 ZUBIETA Francois



*Argazki honetan ageri diren  
pertsonak ezagutzen baldin  
badituzue deitzen ahal duzue  
Andre Harisgain,  
«Gaxintoenea»koa.*

*Telefona:  
05 59 54 16 78*



# Gerla haundiataz

## bi pentsamolde



**Donibane Garazin sortu zen Jean Barbier 1875ean. Ikasketak jaioterrian bertan lehenengo eta Hazparnen, Larresoron eta Baionan ondoren egin zituen. 1898an apaiztu zen. Larresoron irakasle eta Baionan bikario egon ondoren 1913an Senpereko erretore izendatu zuten. Ordurako hasia zen kantuak eta bertsoak idatzu, bildu eta argitaratzen eta aurrera ere literatur munduko alor ezberdinetara hedatuz lan eskerga egin zuen: itzulpenak, ipuin bildumak, kazetari lanak, bertsoak eta 1926 eta 1929an bi zatitan argitaratu zen *Piarres* nobela mardula. 1921etik aurrera, berriz, 1931n hil zen arte, bera izan zuen *Gure Herria* aldizkariak sortzaile eta eragile nagusi**

1914tik 1918rat iraun zuen gerla haundiak, euskal familia aunitzetan samin haundiak ekarri zituen. Euskal gizon gazte guziak deituak izan ziren gerla haundi hortan parte hartzerat. Frantsesentitzen zirenak orguilu haundiarekin gan ziren, bertze batzuk halabarrez eta bertze batzuek oraino, nahiago izan zuten mugaz bertze alderat edo Ameriketarat ihesi egin. Bakotzak hobekien iduritzen zitzaiona egin zuen eta gerla handi horren ondorioak bi izan ziren:

- Frantzian denak urus Alemanen kontra irabazi eta Alsazia berreskuratu zutelakotz.

- Euskal Herrian, frantsesentitzen zirenen eta euskaldun sentitzen zirenen artean zatiketa handi bat. Horren erakusle, ondoko orrialdean dituzuen matxinen bertsoak eta J. Barbieren *Piarres* liburuan ageri den ideologia.

Matxin senpertarren bertsoak ez bezala, Jean Barbier, 1913an Senpereko erretore izendatuaren bertso eta testuak behin baino gehiagotan argitaratuak izan ziren, bertzeak bertze berak sortu Gure Herria aldizkarian. Gainerat, erretore izanik gizon jantzia zen eta erreztasun haundiarekin zabalitzen zituen bere ideiak igandeko mezetan.

Bi idazle senpertar hauen artean diren desberdintasunak biziki argiak dira.

J. Barbier-en *Piarres* liburuan, denbora hauetako gerla aintzineko senpertar bizia eta Frantziaren defendatzerat gerlarat gan zen *Piarres* senpertarren sentimenduak erakusten ditu.

Frantzia herri haundi bat bezala goraipatzen zuen: «Frantzia, herri haundia, lur mokor hetaz guztietaz egina zen. Lur mokor hetarik bat zen Euskal Herria, Euskal Herrian Senpereko herria».

Nahiz eta bera, erretore izanik, ez zen gerlarat gan, gizon gazte guziek Frantziaren alde gerlarat gatea ohore bat bezala hartu be-

har zutela pentsatzen zuen. «Ohore bethikotz, alemanen gezurrengatik, eta guztien-gatik zuzenaren alde, beraz Frantziaren alde, muga hartan diren adixkide azkarrei!...».

Frantziako bandera ere, goraipatu eta saindifikatzen zuen. «Hainbertze guduetan ibili bandera maitea... Eskutik-eskura, urdin zuri eta gorri, lore handi bat iduri, airean heldu zen Frantses Herria bere pleguetan dalkarkien ohial saindua».

Bertzalde, erretore baitzen, aipatzen ditu ere gerlan hil zirenek Senpereko etxeetan utzi zuten dolua. «Asterik ez zen bi, hiru ahoku biltzen ez baitziren Senpereko elizarat... emaztekiak han ziren, bihotz erdiragarri, beren kapa beltzen azpian. Oro ixil ixila nigarrez ari... guzien gogoan han, gerlatoki gorri beltzean, atzo holakoak erori, bihar bertze batzu eroriko diren tokian! Ama gaixo, andre maite horien aldi egun, nigarrez hortxet urtzen ari baitire...». Pena hauek denak xeheki eta xuxenki deskribatzen zituen eta airtortzen zuen ere, zombait egunez ba, sofritzen zuela jaun merarekin, familiatarat berri txarra helarazi behar zuelarik. Alta, ez zuen onhartzten gerlan hil baino, ihesi mugaz bertze alderat gatea. Bere ustez, «ihes egin baino hobe zen hiltzea».

Ez zituen mugaz bertze alderat joaiten zirenak bakarrik mespresatzen. Bertze aldekoak «koko beltzak» deitzen zituen, nahiz senpertar familia aunitz handik etorriak izan eta kontrabandarekin lotura haundiak ziren bi aldean artean.

Bertso eta testu hauekin biziki ongi ageri da gerla haundiaren denboretan ere, Senperen berean bi pentsamolde bazirela: Alde bate-tik Matxinek erakustera emaiten duena, Frantziaren alde gerlarat gatea erokeria zela uste zutenak. Bertzalde, J. Barbierek bezala, Frantziaren alde gerlara gatea ohore bat bezala zeukatenak. Gaurko pentsamolde desberdinek, erroa garai hetan duten dohaik.

Ororen buru, Sarako 30 gazte eta 71 senpertar ez ziren etxerat itzuli.





Molde zaharrearan egindako  
ogiak jendearen arreta pizten  
du urtero



gi), Patxi Mindegia (Zubieta),  
Luis Mari Belarra (Doneztebe),  
Julen Mendieta (Bizkaia), Iñaki  
Beitia (Bizkaia), Iñaki  
Gatzelumendi (Gipuzkoa), Jose  
Etxebeste (Gipuzkoa), Luis  
Txapartegi (Gipuzkoa), Fausto  
Mugerza (Gipuzkoa), Javier  
Aranberri (Gipuzkoa) eta Patxi

Salbidea (Araba).

Kanporaketa honetan fina-  
lean baino lan xamurragoa zu-  
ten: hiru kanaerdiko, 60 ontza-  
ko enbor bat eta 72 ontzako ber-  
tze bat moztea.

Herri Kirol zaleek, beraz, ikus-  
kizun ederra ikusteko aukera izan-  
en dute.

**Patxi Mindegia zubiatarra  
ez zen fin ibili  
Nafarroako txapelketan,  
baina berriz saiatuko da  
Euskal Herrikoan.  
Laguntzaile ona izanen  
du etxean bertan**

*Nerea*  
FERIAK  
ONGI PASA  
ITZAZUE  
San Miguel 2  
DONEZTEBE

 **Purina**  
etor zaitex ikustera

- Ardi, ahuntz, behi, etabarren parasitoak hiltzeko pentsu bereziak
- Pentsu konpuetoak, luzerna eta zerealak
- Hegaztiak
- Laguntza animalientzako janaria
- Kaiola eta tolbak

Aparan Pol. 2, 3 • © 948 451845 • DONEZTEBE

**RUIZ**  
okindegia  
*Autozerbitzua*  
© 948 45 00 37  
Karrika Nagusia 3  
DONEZTEBE


**BAZAR100**  
Inportazio produktuk, opariak, etxerako  
ontziak, landare naturalak eta artifizialak  
Intzakardi 5, DONEZTEBE • Giltxaurdi 12, ELIZONDO

 **Maderas Zabala, S. A.**

- BERTAKO ETA INPORTAZIOKO ZURAK • OIHAN ESPLORAKUNTZAK
- ZERRATEGIA • LEHORTEGIA (HARITZ ETA PAGO FRANTZIARREAN ESPEZIALDUAK) • RASTRELAK • HARITZEZKO KAPIRIUAK

Tfnoa: 948 - 45 01 35  
Faxa: 948 - 45 04 98  
31740 DONEZTEBE

 **Zuraren Industria**  
Tarimak eta zurezko parket-ak

 **ERLOJU  
BITXIDENDA**  
Arabatua  
Lantegi propioa  
© 948 451519  
Merkatu karrika - DONEZTEBE



## Gidatzeko karneta kendu dizute?

*Orain subsidio bat eskuratzen ahal duzu, aseguratuz gero.*



Grupo Asegurador CAIXA CATALUNYA

100.000 pezeta hiru hilabetez kobratzeko urtean 6.390 pezeta ordaindu behar duzu  
150.000 pezeta hiru hilabetez kobratzeko urtean 9.585 pezeta ordaindu behar duzu  
200.000 pezeta hiru hilabetez kobratzeko urtean 12.780 pezeta ordaindu behar duzu

Tarifa hauek gidari profesionalendako dira. Kontsultatu.



## SANTAMARIA Jatetxe-Hostala

*Urte osoan aukera zabala kartan*

  
**Hondarribiako  
arrain frexkoa**

  
**Bertako  
aretzea**

  
**Ehiza, umerria  
eta zerrikumea**

  
**Onddoak  
Fritoak aukeran**

  
**Etxeko postre aukera  
zabala • Kanutilloak**

Nagusia 30  
Tf.: 948 45 00 43  
DONEZTEBE

*Ferietan menu berezia*

# Eder



# Ederki



# T a i l e r r a k

Citroen agente ofiziala

Peugeot agente ofiziala

**Grua zerbitzua 24 ordutan**

**Mekanika • Elektrizidadea • Txapa • Pintura  
Hidraulikan espezialistak**

**Xsara**



**206**



## Donezteben

Leitzako errepidea - Tfnoa: 948 45 05 25

## Presio bidezko garbiketa:

- Kotxearen azpialdea garbitu
- Zikina beratzeko aparra
- Argizariaren distira

## DONEZTEBE GASOLINDEGIA

Leitzako errepidea - 49  
Tel.: 948 451679  
Fax: 948 450857


## Barnealdeko garbiketa:

- Aspiradora
- Alfonbrak garbitzekoa

## Auto-garbitzaile automatikoa

## Gasolinera Zerbitzua

- Denda
- Bigarren eskuko kotxeak eta erremolkeak erakusketan



## TELLETXEA MOBLEAK

*Feria zoriontsuak  
opa dizkizuegu*

Rosa Seminario z/g • Tfnoa: 948 45 02 58 • DONEZTEBE



## AMAIYR

Doneztebeko sarreran  
© 948 450 400

Prezioa zuk  
jarri  
sukaldea guk  
jarriko dizugu

*Ongi pasa  
Doneztebeko  
ferietan!*




- *Etxegintza eta burdindegi materialak*
- *Zeramikak (Venis, Porcelanosa, Aparaci, Porcelanato)*
- *Teila frantsesak (Guiraud, TBF)*
- *Egurrezko sukaldeak*
- *Tximiniak*

© 948 450305 / 948 450068  
**DONEZTEBE**

**Orain**  
**LACUNZA** *banatzaileak*







aitzineko aldetik itxura hau izanen du Legasako pilota plaza berriak

## 57 milioi pezeta gostako da Legasako pilotaleku estalia

57 milioi pezetako inbertsioa egiten dute Legasan, Bertizaranako lehen pilotaleku estalia eraikitzeko. Legasako kontzejuak Nafarroako Kirol eta Gaztediaren Institutuko dirulaguntza jasoko du. Pilotalekuak

36 metro luze eta 15 metro terdi zabal izanen du. Kantxan gutieneko altuera berriz, 13 metrokoa izanen da. Mila pertsona sartzeko lekua izanen da. Astelehen honetan irekitzekoak ziren lana egiteko proposamenak eta hamar hilabeteko epea izanen da lana akitzeko.

## ▼ flash

❖ **Saldiasko Herriko Etxeko** teilatu azpiko solairua moldatuko da, bertan udal bulegoak egiteko. Hasierako aurrekontua 6.876.823 pezetakoa da (BEZ barne) eta behin lanak emanaz gero, lau hilabeteko epea izanen da lanak akitzeko. Proposamenak azaroaren 16ko eguerdia baino lehen aurkeztu beharko dira.

❖ **Oihan ateratzeak Eratsun eta Oitzen** Eratsungo Arniñe inguruan 162 haritz amerikano ateratzeko enkantea egingen du Udalak. 165 metro kubiko zur emanen dute eta hasierako prezioa 1.613-500 pezetakoa da. Proposamenak azaroaren 14ko eguerdia baino lehen aurkeztu behar dira. Oitzen, Ezpeldegia inguruko 334 pago eta 12 haritz aterako dira. hasierako prezioa 14.109.334 pezetakoa da. Proposamenak azaroaren 23a baino lehen aurkeztu behar dira.

❖ **Oitzen** luberriak ateratzeko proiektua onartu du Nafarroako Gobernuak. Aurrekontua 7,31 milioi pezetakoa da eta Iruñetik 4,38 milioi ailegatuko dira.

**GOIZUETA**

# Lur zoru ez-urbanizagarrian etxeak egiteko legedia erraztuko du Udalak

1.500 metro karratuekin nahikoa izanen da famili bakarreko etxea eraikitzeko

**ESTEBAN AROZENA**

Urbanizagarriak ez diren lurretan etxeak eraiki ahal izateko bi oztopo nagusi gainditu behar dituzte goizuetarrek egun indarrean dauden udal planeamenduen arabera: 5.000 metro koadroko lur zoruaren jabe izatea eta Agraria delako aseguruaren barrenean egoatea.

Udalaren ustez, hau gaindiezina da askorentzat, eta bertan bizitzeko etxeren bat egin nahi duten herritarrei bideak erraztu asmoz, sakoneko aldaketak eginen ditu legedian. Horrela, udalbatzak hasi berriak dituen izapide edo tramiteak bukatutakoan, 1.500 metro koadrotan geldituko da

famili-bakarreko etxebizitza bat eraikitzeko behar den lur zoruaren neurria. Agraria berriz, ez da aipatu ere eginen.

Lau hilabete inguru luzatu omen liteke prozesua. Kontutan izan behar da, korporazioak onartutakoan, Herriko Etxeko iragarki taulan hilabete bat egonen dela proposamena, herritarren alegazioak jaso ditzan. Ondoren, alegaziorik balego, hauek aztertu eta Nafarroako Gobernuaren oniritzia jaso beharko du.

**Drogamenpekotasunaren prebentzio programa**

Gizarteanonartuak dauden drogakin (alkohola, tabakoa...) eta onartuak ez daudenekin (porroa, sintesi dro-

gak...) arazoak dituzten goizuetar eta aranoarren zain egonen da ostegun goizero herriko kontsulta zaharrean Junkal Otxotorena leitzarra. Oinarritzko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen eskutik dator programa hau, eta bere helburu nagusia prebentzioa omen da. Dena den, Junkal teknikariaren ustetan, prebentzioa ez da ez kontsumitzea, pertsonaren nortasuna eta identitatea eraikitzea baizik, norberak erabaki dezan zergatik, nola, noiz eta zenbat kontsumitzen duen, menpekotasunik sortu gabe.

**Mus eta truk txapelketak**

Urriaren 24an, Zaharren Egunaren bez-



**Urrezko Eztaial**

Benito Ollo eta Romana Eskudero urriaren 3an ospatu zituzten Urrezko Ezteiak. Bikotea Goizuetako elizan ezkondu zen 1948ko irailaren 30ean eta bost seme-alaba eta zazpi iloba dituzte.

peran, 65 urtetik goitiko herritarrek mus eta truk txapelketak jokatu zituzten. Trukean Maritxu Salaberria eta Josefina Zubieta izan ziren txapelkunak eta Romana Eskudero eta

Fermina Salaberria bigarrenak. Musean berriaz, Xilbino Perurena eta Pedro Mutuberriak irabazi zuten lehia Joxe Eskudero eta Laxaro Apezetxearen kontra jokatutako final handian.

**ARESO**

# Haurren autoestima lantzen ari dira

Eskola eta gurasoen artean

**JUANA M<sup>a</sup> SAIZAR**

Urriaren 6an, eskolako irakasleek gurasoei deialdia luzatu zieten, elkarrekin lan egiteko. Batzuk eskolan eta bertzeak etxean, seme-alaben autoestima lantzea da helburua, ume-

ek berekiko onespena bizkortzeko pautak batzuei jarraituz. Janaria, jantzia, garbiketa, higiena, bakardadea eta erantzukizuna izango dira kontuan hartzeko gaiak. Adina eta ekin-tzak parekatuak egon beharko dute.



**Schola Cantorum**


Urriaren 18an, Udazkeneko Biraren barnean Schola Cantorum abesbatzaren emanaldia izan genuen elizan. Agur Jaunak abestu zuten sarreragisa eta beste hamasei abesti gehiago entzun ziren, emanaldi polita lortuz.

**Mendi ibilaldia**

Eguraldi onak probe-

txatuz, pasa den astean eskolako umeek men-

diz mendi Berastegira irtenaldia egin zuten.



**300 milioi gostako da herritik autobiderako bidea moldatzea**

Herritik A-15 autobiderra doan NA-170 errepideko 2,6 kilometro moldatzeko 299.934.594 pezeta gastatuko dira, Nafarroako Gobernuko Herrilan, garraio eta Komunikabide Departamenduak onartutako proiektuaren arabera. Behin lanak emanda hamar hilabeteko epea izanen da bukatzeko. Autobidea zabaldu zenetik nabarmen igo da errepide honetatik pasatzen diren autoak (egunean 2.887 ibilgailu, batz bestea) eta horietatik %5, pisu astuneko kamioiak dira.

**flash**

**Urdiñolako egur lotea**

Milagros Apezetxea Perurena goizuetararak aterako du Urdiñolako alerce eta insignis pinuen lotea. Horretarako urte bateko epea izanen du. Lotearen oinarritzko prezioa 15,6 milioikoa zen eta Apezetxeak 17,5 milioi eskaini ditu. Berea izan zen eskaintza onena. Zubillaga Saralegui S.L. eta Jose Antonio Huizik ere parte hartu zuten subastan.

**Azienda katastroa**

Aziendarik daukanak, abeltzantzaren aberastasuna kontartzeko orria edo katastroa, Udaletxeko bulegoetan betetzea beharturik dago, azaroan zehar.

**Gaztain jatea Torrean**

Datorren larunbatean, hilak 7, gaueko 9etan, Torrean Elkartean talo eta gaztain jatea izanen da. Menua: baratzurizopa, taloa, gaztain erreak, kafea, kopa... Salneurria 2.200 pzt. Ondoren gaiterokak ere izanen dira.

**Guardia Zibilaren jarrera erasokorra salatu du Udalak**

Erakundeak erabiltzen duen etxea herriak erabiltzea ere eskatu da

JOSEBA AZPIROZ

Urriaren 20an egin-dako bilkuran Guardia Civil-ak Leitzaan erakusten ari diren jarrerari buruz herritar talde batek aurkeztutako mozioarekin onartu du Udalak, EA eta HBren aldeko botuekin.

Mozioaren arabera, «Leitzako herritarrok urteetan zehar jasan behar izan dugun Guardia Zibilaren okupazio egoera unetik unera larri-

gotzen ari da azken hilabete hauetan, arazo hau herritarren kezka nagusienetakoa bilakatzeko delarik: egunero errepide kontrolak, isunak, identifikazioak, mehatxuak, probokazioak, inpunitate osoz katxeatzen gaituzte, pistolaz mehatxatu, jipoiu, Udalaren, tabernariaren zein herritarren aurkako salaketak eta isunak ...». Egoera hau larriagotu baino lehen, idatziak «Guardia

Zibilak azken hilabeteetan Leitzaan burutu dituen eraso guztiak gaitzetsiz salaketa judiziala aurkeztea» eskatzen zuten. Erasoak jasan dituen orori (herritar zein kanpotarrei) erabateko elkaratsuna adierazteaz gain, era ezberdinetako laguntza zein babesa bermatuko du Udalak eta Nafarroako Legebiltzarrean ere salaketa aurkeztuko da.

Mozioak gogorazten zuenez, «Guardia

Zibilak erabiltzen duen etxea herriarena da eta honek herriaren eta herritarren zenbait behar beteko lituzke».

**Epamahiakide izateko hautagaiak**

Anton Rueda, Mari Carmen Baraibar Gogorza, Jesus Mari Erkizia Almandoz, Antton Iruirtia Lizarraga, Florencio Mujika Astibia, Jose Javier Sagastibeltza Saralegi, M. Jesus Zabaleta Zelaieta, Joseba

**Elizatzte**  
ERLOJUTEGI BITXITEGIA  
Nafarrentzat prezio bereziak  
Landetxe Enparantza © 943.492698 OIARTZUN

**GAZTELU ITURGINTZA**  
KALEFAKZIOA  
Elgoien 32  
Tfnoa: 948 510 086 • LEITZA



Urtebeteko konexioa gehi posta elektronikoko helbidea:  
**10.000 Pta. + BEZ**

**KONEKTATU internetera**

TTIPI TXARTELA izateagatik INTERNETera konektatzeko aukera ezin hobea duzu. JALGI zerbitzariarekin urtebeteko konexioa gehi posta elektronikoko helbidea 10.000 Ptatan. Aukera hau galdu nahi ez baduzu, deitu:

**(+34) 948 631188**

# Gizarte-Etxearen alde agertu da Iruritako batzarrea

Herriko ekitaldi eta talde ezberdinendako biltokia izan nahi du

TTIPI-TTAPA

Iruritako bizilagunek, bertako talde eta gizarte sektore ezberdinek erabiliko duten biltoki baten aldeko apostua egin dute. Gizarte-Etxe honen proiektua ahobatez onartu zuten batzarrean bildutako 143 iruritarrek.

Aitzinetik etxe azaldu da egitasmoa. Honen arabera, Gizarte-Etxeak ttikiendako jostalekoa, ostatua eta erabilera anitzeko aretoa (zinea, antzerkia, kontzertuak, erakusketak...), gazteendako eremua eta jubilatuen egoitza izanen lituzke.

Iruritik dituen 864 biztanleetatik kasik 300 hogeita hamar urtez behetikoak dira eta ez dute elkartzeko leku egokirik. Gizarte-Etxea gogotsu bultzatzen ari diren Jose Luis Urrutia eta Isidro Hergueda apezaren



Herriko dantza taldeak ere izanen du entsaiatzeko lekua **Gizarte-Etxearen proiektua aitzinera ateratzen bada**

Artxibokoa

ren ustez, «*gazteek ez dute non bildu, ezta heldu eta adinekoek ere. Gizarte bizitza gero eta ahulagoa da. Iruritan gauza aumitz egiten dira, baina bakoitzak bere gisara egiten ditu*».

Beti bezala, dirua izan-

nen da arazorik handiena, baina iruritarrek baikor ageri dira. Egitasmoa Balleko Etxean aurkeztuko da. Kokapena ere erabaki behar da: etxe bat zaharberri- edo egoitza berria egin dago aukeran.

## Epamahaikide izateko hautagaiak

Aldako Aleman, Joaquin Arizaleta Etxenike, M.Carmen Askunze Etxart, Segunda Benito Bardot, Carmen Daguerre Ibarrola, Piedad Etxeberria Agesta, M.Teresa Erro Hortola, Milagros Garcia Artieda, Elvira Goienetxe Cordoba, Antonio Iriarte Zozaia, Jose Tomas Iturralde Irigoien, M.Dolores Larregi Irigoien, M.Jesus Martin San Matias, Angel Mugiro Altuna, Miguel Otondo Iribarren, Francisco Salaburu Arozarena, Jesus Jose Torroba Sanzberro, M.Carmen Bertiz Subizar, Javier

## Folk Ametsetan kanpainaren harian zenbait kontzertu eginen dira asteotan

Balleko Udalak Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza eta Kultura Departamenduaren laguntzaz antolatutako «Folk Ametsetan» kanpainaren barrenean, zenbait kontzertu burutzen ari dira azaroaren lehen hamabostal-

dian Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean.

Azaroaren lehenean, Kanarietako folklorea aurkeztu zuen Jose Antonio Ramosek. Igande honetan, azaroak 8, inguru honetan ezagunakoa den talde bat, Gozategi taldea,

hain zuzen, arituko da. Trikiti doinuak nagusituko dira, beraz, igandean. Azaroaren 15ean, azkenik, Latinoamerikako musika herrikoia egiten duen Erreka taldea arituko da. Ekitaldi guztiak arratseko 8etan hasiko dira.

## flash

### Guggenheim museora bisita

Balleko Etxeko Kultura Zerbitzuak abenduaren 3an Bilbora joateko autobusa antolatu du, Guggenheim museoa bisitatu asmoz. Autobusa goizeko 8etan abiatuko da eta itzulia berriz, arratsaldeko 6,30etan. Prezioa 2.500 pezetakoa da eta bertan sartzen dira bidaia, sarrera eta museoko bisita gidatua. Izen ematea zabalik dago.

### Haurrendako margoketa ikastaroa

Astearte honetan hasi da Arizkunenean haurrendako margoketa ikastaroa, Tomas Sobrino margolariaren eskutik. Hiru taldetan banatuko dira haurrak: 5-6 urtekoak; 6-7 urtekoak eta 8-10 urtekoak. Izen emateko prezioa 6.000 pezetakoa da.

### Arizkongo eskola zaharra

Cristobal Caballero eraikuntza enpresak erosi du Arizkongo eskola zaharra 11.131.000 pezetaren truke. Txuputo karrikan dagoen etxea ez zen aspaldian erabiltzen eta Balleko Etxeak enkantean saltzea erabaki zuen. Lehen al-dian saldu ez zenez, %10 merkeago jarri zuen hasierako prezioa.

## OPS Ingenieros S.L.

- **Topografi lanak:** Lur neurketak, balorazioak.
- **Nekazal proiektuak:** Bideak, ur deposituak, etxebizitzak, granjak, nabeak...

Barañain Etorb.2 • IRUÑA • Tel: 948267453-948267602



## BAZTAN OPTIKA

**ORDUTEGI BERRIA:**  
Egunero

goizeko 9,30etatik 1,30etara eta arratsaldetan, 4,45etatik 7,45etara

Santiago, 33 (Baztan ostatuaren aitzinean) • ELIZONDO



**JATETXEA**  
© 948 580101  
Santiago 1  
ELIZONDO

Galeria

**BAZTAN**

# Belateko zuloen lanak hirutik batean garestitu ziren

Proiektuen kalidade eskasa izan da horren arrazoia

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak dagoeneko 12.578 milioi pezeta gastatu ditu Belateko bide berriak moldatzen. Hasierako kontuetatik %33 gehiago erran nahi du horrek. Zati batzutan %70 ere altxatu da gastu gehigarria. Arrazoia, lanen kalitate txarrari egotzi dio Kontu Ganbarak, gehien bat Belateko tunelean eta Arraitzko Benta eta Zozaia arteko zatian.

1993-94an adjudikatutako lanetan 12.431 milioi pezeta inbertitu ziren. Hauetatik 11.400 milioi obra egiteko, eta gainerakoak proiektu, estudio, elektrizidade eta berteze gastuetan. Baina, obrak aitzina egin ahala, konponketa gastuetan berteze 145 milioi pezeta utzi ziren.

Gauzak horrela, Kontu Ganbarak kontratistei ardura gehiago ez eskatu izana leporatu dio Nafarroako Gobernuko Herrilan, Garraio eta Komunikabide Departamenduari.

Gainera, obrak egiteko orduan planteatu



Bidea ideki zenetik 12.578 milioi pezeta gastatu da moldatze lanetan

mendu egokirik ez dela izan azpimarratzen du txostenak, kasu batzutan zati bateko lanak geldiarazi behar izan baitzituzten, bertzeen atzerapena zela eta.

Belateko tunelari dagokionez, datu kezka-

garri gehiago ageri dira. Proiektua martxan jarriz zenetik bortz aldaketa izan ditu eta azkenean 2.872 milioi pezetako aurrekontutik 4.215 milioiko gastuetara pasatu da. Gainera, hasiera batean bi urte-

tan akitu beharreko lanak hiru urte terdiz luzatu dira.

Mantenu lanetan, hila betean hamar milioiko gastua ere izanen zela ez zuen inork aurrikusi obra egin aitzinetik.



## Omenaldi xumea Mariano Izetari

Lehen Euskara Jardunaldiei bukaera emateko, ttipi-ttapa Fundazioak omenaldi xume bat egingen dio Mariano Izetari. Jakina denez, Izetak lan gaitza egin du Baztango hizkera zaintzen eta haren erabilera indartzen. Hori guztiagatik, oraoigarri bat emanen zaio azaroaren 14ean Doneztebeko Juansenean, eguerdiko 12ak aldera.

## flash

### Oronozko eskola zaharrean

Babes Ofizialeko Etxebizitzak egiteko aukera aztertze txostena eskatuko du Balleko Etxeak. Proposamena UPNko Zapata zinegotziak egin zuen, Oronozko gazteen eskaria hornitzeko asmoarekin eta ahobatez onartu zen.

### Javier Zigaren lau margolan

utzi dizkio Balleko Etxeak Nafarroako Aurrezki Kutxari, Iruñeko Anaiurko Gaztelua Kultur Zentruan, azaroaren 5etik abenduaren 23ra zabalik egonen den erakusketan zintzilikatzeko.

### Baztango Mendigoizaleak

Igande honetan, azaroak 8, Auritzera ibilaldia egingen dute Baztango Mendigoizaleak. Txiki-politen bazkalduko dute. Mendi ostatuan izena eman behar da lehenbailehen: bazkideek 2.500 eta gainerakoek 3.000 pta.

### Udal Musika Eskola

1998-99 ikasturterako aurrekontua, tasak, ordutegia eta langilegoa onartu dira.



## BAZTAN

### ALTZARIAK zurgindegia

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mogleak
- Estiloko mogleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak

121 errepede nazionala, 54. km • Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

## MENDI OSTATUA

Santiago 25 - © 948 580313  
ELIZONDO

## BAZTAN FUNERARIA

EHORZKETA ZERBITZUAK • HILKUTXEN  
ERAKUSKETA ETA SALMENTA • TRASLADOAK  
Jaime Urrutia 53 • ELIZONDO  
© 948 580373 • 908 776176

## MENDIALDE Jatetxea

**Etxeko gasnak saltzen ditugu**  
Dantxarinearako bidean, 66. km.  
AMAUIUR • Tfnoa: 948 453 060

**SARA**

# Zirimolan Kultur Hamabostaldia azaroaren 21ean hasiko da

Euskal Antzerki Talde Amateurren Topaketa egingen da Saran

MIXEL ETA JACQUELINE

Orain arte hilabete kulturala egin bada, aurtentzen iraupena erditaratu izan da. Zirimolan izeneko Kultur Hamabostaldia azaroaren 21ean hasiko da, abendoaren 6an bururatzeko eta honen antolakuntza Etxalarko Altxata, Berako Gure Txokoa, Azkaingo Altxa Lili eta Sarako Gaztetxeak bere gain hartzen dute.

Haize zirimolak eskuin eta ezker jotzen duen bezala, antolatzailerik berdin jo dute, gai bakar bati lotu gabe. Hara nola antzerki, topaketa, grafologia, laburmetraia, herrien arteko jokoak, multimedia eta bertze landuak izanen diren.

Saran, Euskal Antzerki Talde Amateurren Topaketa egingen da azaroaren 21 eta 22an.



Urriaren 11ko Euskararen aldeko ekitaldira hurbildu jendea

Azaroaren 28an laburmetrai en arratsa eta abenduaren 6an Ziberkafean.

### Urtxintzentzat oldar berri bat

Sarako Urtxintxak

eskubaloi taldea, berrikitan nahiko kinka txarrean zegoen kirolari eskarengatik. Egoera larri hortarik ateratzeko arduradunek Senpereko SPUC elkarteari dei egin dute eta bateratu

dira. Beraz, Urtxintxak oraino jautzika ibiliko dira elkartasunari esker.

### Urriko arratsalde goxo bat euskararen onetan

«Bai euskarari» le-

mapean, nahiko jende etorri zen urriaren 11an antolatu ekitaldira. Hor entzun genituen Xalbador eta Ihidoy, Aire ahizpak eta Berangoko Otxandategi dantza taldeak eskaini ikusgarri zoragarriaren preziazteko parada ere ukan genuen. Azpimarratzekoa, partaide guzi hauek dohainik etorri zirela euskararen alde.

### Lurraren erabilpenari doazkion arauak

Duela hiru urte Herriko Etxeak onartu zuen Lurraren Erabilpenari Doazkion Arauak (P.O.S.) finkatzea. Denbora igaro da eta orain epea hurbiltzen ari da. Lan hau ikerketa bulego batek burutuko du 132.750 liberaren alde, departamendua (DDE) koordinatzailea izanen delarik.

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

## ANZABAL

AGENZIA

- **Zurich Aseguruak**
  - Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- **Lan aholkularitza**
  - Nomina eta Aseguru Sozialak
- **Aholkularitza fiskala**
  - Errenta Deklarazioak, IVA...
- **Inmobiliaria**
  - Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua
- **Gestoria**
  - Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

Santiago 15 - Tinoa eta Faxa: 948 580804 - ELIZONDO

## Maderas GOMEN

- Era guzietako atek, janbak eta reguesoak
- Egur idorrak: tropikalak, haritzak, gartzainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gartzaina, pinua...
- Tableroak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

Zaldubia Poligonoa • IRURITA • ☎ 948 580 645

**ARMUA**  
Jatetxea

Zugarramurdiko karretera 3. Km  
☎ 948 599 131 - URDAZUBI

## SOULE

**Hileta artea**

☎ 948 453 444  
☎ 908 779 903  
**ARIZKUN**

## ttipi-ttapa

6.800 harpidedun  
23.000 irakurle

SENPERE

# Frantses Ingurugiro ministro berdea Lapurdi kostaldean izan da

Itsasoko zikinkerien problema konpondu nahi luke Dominique Voynetek

FRANCK DOLOSOR

Itsasoko zikinkerien problema konpondu nahian bildu da Ingu- rumen eta Lurralde Ant- olakuntzaren Ministroa Lapurdi kostaldeko au- zapezekin, Itsasertzeko Hautetsien Elkartearen urteko biltzar nagusia- ren kariatarat. Nahiz eta bidaiaria aintz egin eus- kal lurretan militante ekologista gisa, lehen aldikoz etorri zaigu Dominique Voynet mi- nistro gisa. Denbora es- kasez, ez da bildu ahal izan hemengo talde eko- logistekin.

Voynet arabera, «*itsasoko kutsadura ge- ro eta larriagoa da, eta aterabide orokorra atxeman behar zaio, mugaz gaineko elkar- lana haundituz*». Ez da gauza errea izanen, ikusiz bertaldeko kar- gudunik ez dela izan la- purdin, ministroarekin solasteko. Bazterrak la- sartzeko gogoarekin, Voynetek aitatu du itsa- sertzzea garatzeko eta zaintzeko Gobernuak duen nahikaria. Minis-



Dominique Voynet, Frantziako Ingu- rumen eta Lurralde Antolakuntzaren Ministroa Euskal Herrira egindako bisitan

Euskaldunon Egunkaria

troari Lizarra-Garaziko akordioa eman diote Abertzaleen Batasu- nako bi ordezkariak. Ministroak ez du doku- mentuaren mamia ai- patu nahi izan, ez eta euskal departamendu- ren proiektua. Berdeak ez omen du «*asmorik departamenduko prefe- tarekin samurtzeko, eta ene imusmoldea hortaz ezaguna da*». Voynetek erranetan euskal depar- tamendu batek ez du

deusetarako balio, de- partamenduak desager- tarazi behar direlako, eskualde haundiagoak egiteko gisan.

### 400 haur herriko ikastetxeetan

Eskola sartzeak izan ditugu buruil hastape- nean eta gure herriko haurrak berriz lanean hasi zaizkigu erakasle- en laguntzarekin.

Aurten Zaldubi ikas- tolan 40 haur ibilki di-

re eta urte ondarra ain- tzin bertze bortz haste- koak dire.

San Josep eskola pri- batuak 185 haur biltzen ditu. Hauetarik 70 kla- se elebidunetan dabil- tza.

Eskola publikoan 178 haur daude, elebi- dun sailan 104 gaztetxo biltzen dituzte, sei mai- letan banaturik. Hauek erdaraz ikasteaz gain oren batzuk euskaraz ere egiten dituzte.

flash

❖ **Parropi berriak**  
Baionako apezpi- kuak hala delibera- turik, parropia be- rriak eta haundiago- ak sartu dire aurten. Senpere, Sara eta Azkaine bildu dituz- te eta egitura berri hau urriaren 17an, la- runbatarekin, sortu da iluntzeko 8etan izan den meza bere- ziarekin.

❖ **Gazteen katexima**  
Ikasturte berriarekin batean katexima ere hasi da senpertar gaz- teentzat. Izenak ape- zetxean eman ditaiz- ke, buraso eta lagun- tzaileak ezagutuz denbora bereean.

❖ **Urrezko Eztaiak**  
ospatu dituzte Maddi eta Henri Hourcas- tagne eta Emilienne eta Pierre Lagrenade senpertarrek. Badu 50 urte ere Salbat Sanzberro bikario de- la. Deneri zorionak.

❖ **Mutxiokoa**  
ikasten dituzte Ziki- rolatz dantza talde- ko helduek. Kurtsoak asteazkenetan irag- aiten dire iluntzeko 8etan lehen urteko- entzat eta 9etan bi- garrenekoentzat. Hilabetean behin de- nak biltzen dire El- kartetxean elgarrekin dantzatzeko gisan. Hiru hilabetetarik behin, hilabetezko az- ken ortziraletan, dan- tzatzeaz gain elga- rrekin afaltzen dute.

❖ **Pario ezagunak**  
Jean Batit Santsin ze- naren parioa ezagu- nena izan bazen ere, jakina da jende aintz beti parioa ari zela. Dakienak idatz di- tzala, guk argitara- tzeko. Galdu ez dai- tezen...

Kutxa Kutxa Kutxa  
Kutxa Kutxa Kutxa Kutxa  
**Kidetza berri bat!**  
7, Portuko Karrika-64700 Hendaia  
Tel. 0559203274 Fax 0559203237

GVRE IRRATIA  
106.6 Mhz

**ZUGARRAMURDI**

# Bi denda Miarritzeko Halloween Bestan

Laxoinek eta Suteiak parte hartu dute

MARGARI ETA KORO

Miarritzen ospatzen ari den «Halloween besta»n parte hartzen ari dire Laxoinea eta Xuteia dendak. Besta hau sorginkeri, beldurra eta magiaren inguruan egiten da eta bi denda hauek gai horrekin zerikusia haundia daukatenez gonbidatuak izan dira. Besta hunen jatorria Estatu Batuetan da, han garrantzi handia baitu, bainan euskaldun aunitzek Estatu Batuetan familiako loturak dituztela eta, Miarritzek nolazpaiteko oroitzapena egin nahi die besta hunen bitartez. Orain arte egun bat bakarrik ospatzen zen, baina aurtun aste osoa antolatu dute, urriaren 24tik 31ra.

Argazkian agertzen dena Laxoinek besta hau profitatuz atera duten salmenta berria da: aurpegiak zilo batetik ateraz egiten den argazki bitxia.

Argazkian agertzen dena Laxoinek besta hau profitatuz atera duten salmenta berria da: aurpegiak zilo batetik ateraz egiten den argazki bitxia.

### Zugarramurdi abizena dutenen bilkura

Urriaren 25ean elkartu ziren herrian bizen abizena Zugarramurdi daukaten ehun la-

gun (Urruña, Doneztebe, Elizondo... eta hainbat herrietatik bilduak. Eguerdiko meza entzun ondoren, Azketan zuten bazkaria. Bazkalondotik dantzaldia ere antolatu zuten.



### Xareta ikastaroak Toki Ona Institutuaren eskutik

Berako Toki Ona Institutuak Xareta proiektuko klaseei urriaren 26an eman zion hasiera. Gaztelera eta euskarazko ikasketak izanen dire, arratseko 8etatik 10etara Saran.

Bertzalde, Urdazubin emanen diren ikasketak zehaztu gabe daude, baina badirudi frantsesa ikasteko talderik ez dela osatuko. Bai, ordea, Informatikarako.

Landa etxeak dituz-

tenek, beraien Kudeaketarako Informatika ikasketak eskatu dituzte.

«Xareta» proiektuan dena dohainik da. Nafarroa eta Akitaniako Gobernuak ordaintzen dute.

ASCAT    
 Grupo Asegurador CAIXA CATALUNYA



Zure etxeko zaindaria

## ETXEBIZITZA ASEGURUA

### Aseguru bikaina

- Kaltetutakoa gaur eguneko balioan itzuliko dizu.
- Edukitzaile eta edukinaren balio estetikoa segurtatzen dizu.
- TB edota bideoa itzuliko dizu, aseguratutako arrazoi batengatik hondatzen bada.
- Ardura Zibila aukera 50.000.000 pezeta arte.
- Urak sortutako kalteengatik garantia, ez bakarrik aberia moldatzea, baita aberia bera topatzen sortutako gastuak ere.
- Kalte elektrikoak, lorategien moldatzea, kongeladorean daudenak...

**Zatoz eta informa zaitez!**

  
**ASEGURUAK**  
 Parrokia 21  
 Tel.-Fax: 948 450266  
 DONEZTEBE

  
**AUTO ESKOLA**  
 Saskaitz plaza  
 Tel.: 948 580 077  
 ELIZONDO



## EZKONTZAK

Luis Toledo Gartxitorena eta Marta Hernaez Susperregi, Irun eta Lesakakoa, urriaren 11n, Almandozen.

Francisco Ihabar Paternain eta Maria Jose Danboriena Saharrea, Murugarren eta Elizondokoa, urriaren 17an.

Fernando Goñi Muñoa eta Beatriz Beauzaurena Cedazo, Elizondo eta Iruñakoa, urriaren 24an.

Jose Ramon Altzuguren Dagerre eta Blanca Isabel Larraza Mitxelorena, Bera eta Doneztebekoa, urriaren 17an.

Angel Maria Mendiburu Ariztizabal eta Maria Arantzazu Telletxea Aizpuru, Elizondo eta Lesakakoa, urriaren 24an.

Iñigo Mitxeo Mendiola eta Idoia Migeltorena Gamio, Gaztelukoak, irailaren 5ean.

Javier Escalada Martingazte eta Maria Pilar Telletxea Sagaseta, Arizkun eta Beintza-Labaiengoa, abuztuaren 15ean.

Juan Pedro Osakar Agerrebere eta Mari Carmen Mutuberria Bengoetxea, Ziga eta Beintza-Labaiengoa, irailaren 12an.

Begoña Bergara Lazkano eta Juan Altuna Alza, Arantza eta Iruñekoa, urriaren 24an.

## JAIOTZAK

Joseba Baraibar Jauregi, Almandozkoa, urriaren 15ean.

Maria Zabaleta Zestau, Leitzakoa, urriaren 20an, 93 urte.

Leire Aizpuru Jorajuria, Sunbillakoa, urriaren 19an.

Ane Otxoteko Maia, Lesakakoa, urriaren 12an.

Maitane Oteiza Gonzalez, Gaztelukoak, urriaren 3an.

Mikel Oteiza Gonzalez, Gaztelukoak, urriaren 3an.

Mathieu Lesage, Sarako Serorainekoa, urriaren 16an.

Sara Olazar Mariezkurrena, Elgorriagakoa, urriaren 23an.

### ZORIONAK!

Oparia ematen lehenak izan nahi dugu



Haurtxoa sortu eta etorri Iruñeko Kutxara berehala. Aldatzeko saskitxo hau, haurraren garbitasunerako produktuekin bete, emanen dizugu.

**Ez ahantzi familiaren liburuxka!**

IRUÑEKO KUTXA

## HERIOTZAK

Josefa Antonia Irigoien Bikondoa, Erratzukoa, urriaren 25ean, 95 urte.

Josefa Sagardia Erneta, Donamariakoa, urriaren 22an, 75 urte.

Jean Martin Fagoaga, Sarakoa, urriaren 17an, 69 urte.

Germaine Elorga Jorajuria, Sarakoa, urriaren 15ean, 85 urte.

Bernard Beyries, Senperekoa, irailaren 1ean, 95 urte.

Louise Ragot Marie, Senperekoa, irailaren 4an, 61 urte.

Henri Galar, Senperekoa, irailaren 5ean, 71 urte.

Jeanne Irabola, Senperekoa, irailaren 29an, 79 urte.



# ADOS

## INMOBILIARIA AGENTZIA

Julian Izura Nuin

Telefonoak: 948451841 / 908778653

e-mail: ados@iname.com

Parrokia, 5-2.ezk • DONEZTEBE

### BERA.

- Pisu bat, Kanttonberri karrikan, erabat eguzkitsua.
- 200 m<sup>2</sup>ko bajera salgai Legia karrikan. Premiakoz denez, aukera ona.
- Pisu bat, Legian. Oso zaindua. Aukera.
- 150 m<sup>2</sup>ko bajera kuadrato bat errentan emateko Kanttonberri.
- Lur eremua etxea eraikitzeko baimenarekin. Ordaintzeko erraztasunak.
- Pisu bat Postetxe gainean. Hagitz kattotteroa da, garajearekin.

### LESAKA.

- Bajera bat Bittiria karrikan saltzeko edo errentan emateko.

### ETXALAR.

- Etxe berri bat salgai, bere lorategiarekin.

### IGANTZI.

- Baserri bat bere lur guzietan salgai.

### ARANTZA.

- Etxetxo bat salgai. Zaharberritu behar da.

### SUNBILLA.

- Etxea egiteko lur egokia, salgai. Eguzkitsua

### DONEZTEBE.

- Donamariako bidean bajeak, lokal komertzialak eta garajeak salgai. Aukera polita.
- Zubi ondoan etxe haundi bat salgai.
- Pisu berri-berria salgai. Ongi kokatua.
- Joxepa etxe osoa salgai.
- Bajera batzuk salgai, herri erdian.
- Pisu batzuk errentan emateko.
- Osasun Zentro ondoan aurten eginen diren pisu berriak (VPO) salgai.
- Udaletxe ondoan, 120 eta 160 metro koadroko pisuak salgai.
- Eraikitzeko moduko lur eremua salgai, pizina gaineko aldean.
- Aparan, pabilioi berriak egiteko prest, 75 metrotik goiti.
- Elkar atxikitako etxe bat salgai, garajea.

### ELGORRIAGA.

- 200 m<sup>2</sup>ko bajera errentan emateko.
- Pisu eder bat bere sotoarekin salgai.
- Pisu berri bat, garaje eta ganbararekin, salgai. Larri. Premiagatik merke.

### ITUREN.

- Etxe handi bat bere baratzarekin salgai.

- Pisuak salgai, berri-berriak, Lasaga auzoan, aukera ona, bajearekin edo hutsak. Azkeneko biak.

### ZUBIETA.

- Etxe haundia, pisu batekin egina, salgai.

### EZKURRA

- Etxe bat salgai.

### LEITZA.

- Pisu batzuk salgai.
- Eraikitzeko moduko lur eremua salgai.

### LEKUNBERRI.

- Etxe zoragarri bat salgai.
- Pisu bat salgai, oso interesgarria da.
- Lur-eremua salgai, etxe bat egiteko.

### DONAMARIA.

- Etxe dotorea, Donamariako Bentetan.
- Borda bat errentan emateko.

### OITZ.

- Txaleta bere terrenoarekin salgai.
- Belagi bat, 10.000 m<sup>2</sup>koa, salgai.

### URROTZ.

- Baserri bat salgai., terrenoarekin.

### BEINTZA-LABAIEN.

- Etxe bat, bere lur guzietan, salgai.

### ERRATZU.

- Baserri salgai bere lurrekin.

### LEGASA.

- Pisu salgai, bere bajearekin, Iturrialdean. Arras merke.
- Lur eremu bat, etxea egiteko aproposa, El Rio ostatu ondoan, salgai.
- Pisu bat, arras merkea, salgai.

### NARBARTE.

- Pisu salgai, ekonomikoa.

### MUGAIRI.

- Pisu eguzkitsua, salgai, ganbararekin.
- 60 m<sup>2</sup>ko bajera bat salgai, Ongi-etorri ostatuaren ondoan, 'MRW' izan zena.

### IRURITA.

- Pisu errentan emateko.
- Pisu berri salgai. Prezio interesgarria.
- Etxea egiteko lurra salgai. Merke.

### ELIZONDO.

- Pisu bat, Braulio Iriarte karrikan, arras polita eta merkea, salgai.
- Pisu Giltxaurdi karrikan arras interesgarria.

### HENDAIA.

- Apartamentuak eta estudioak salgai.

# BAZTAN

multiservicios

## AHOLKULARITZA ZERBITZUAK:

- ✕ Fiskala:  
IVA, IRPF, Sozietateak
- ✕ Laborala:  
Nominak, Autonomoak, Altak eta Bajak
- ✕ Juridikoa:  
Kontratuak
- ✕ Kontabilitateak

## ETXEEN SALEROSKETA:

- ✕ Etxe eta lurren salerosketa eta alokairu zerbitzua
- ✕ Eskaera haundiagatik, baserri, borda eta etxeak erosi nahi ditugu.

Tfnoa. eta faxa: 948 58 05 06

Santiago, 51 • [ELIZONDO](#) • "La Asturiana" ondoan gaude

## EHIZARI BURUZKO VI. JARDUNALDI GASTRONOMIKOAK

AZAROAREN 6tik 29ra

Urdazubi, Baztan, Bertizarana, Malerreka eta Bortzirietako 18 jatetxek eskainirik

Usoa, basurdea, oreina, erbia edo oilagorraz osatutako menuak aurkituko dituzu, betiko moduan edo era berrietan eginak. Orain, ezinbertzeko aukera duzu otordu goxo bat dastatzeko.

1.800 eta 3.800 Pta.  
arteko menuak  
(ardoa eta BEZ kanpo)

Dena den, jatetxe guztiek beren ohiko karta eta zerbitzuak eskainiko dituzte.

## JATETXEAK

<b>ALMANDOZ</b>	
Beola. ....	948 59 50 02
<b>ARANTZA</b>	
Aterpe. ....	948 63 41 79
Burlada. ....	948 63 40 27
<b>BERA</b>	
Matxiarena. ....	948 63 00 33
Zalain. ....	948 63 11 06
<b>DONAMARIA</b>	
Donamariko Benta. ....	948 45 07 08
<b>DONEZTEBE</b>	
Amezia. ....	948 45 00 28
Belarra. ....	948 45 03 06
<b>ELIZONDO</b>	
Eskisaroai. ....	948 58 00 13
Txokoto. ....	948 58 03 49
<b>IGANTZI</b>	
Igantzi. ....	948 63 75 02
La Villa. ....	948 63 72 90
<b>IRURITA</b>	
Taberna del Fotógrafo. ....	948 45 20 87
<b>LESAKA</b>	
Kasino. ....	948 63 71 52
Bereau. ....	948 62 75 09
Koxkonta. ....	948 62 75 19
<b>OIEREGI</b>	
Hotel Mugaire. ....	948 59 20 50
<b>URDAZUBI</b>	
Indiano-Baita. ....	948 59 90 21

## LAGUNTZAILEAK



• Nafarroako Gobernua  
Turismo Departamentua

## ANTOLATZAILEA





# Elduaien

HIZKUNTZA ESKOLA

☎ 948 510635

Elbarren, 20 - 1. • 31880 LEITZA

# Leitzara iritsi da

- Ingelesa ikastea ez da hain garestia. Hemendik aurrera 3.100 Ptatik, aurrera etxeko txikienak (4-9 urte bitartean) gaur egun hain beharrezkoa den hizkuntza hau ikasteko aukera izanen dute herrian.
- Trinity, Cambridge, E.O.I. eta beste azterketa ofizialetarako prestaketa berezia egiten da.



1996. urteko  
zerbitzu onenaren  
aintzindari

